# 2008ko Memoria
# Donostia Kultura

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea Semana de Cine Fantástico y de Terror

San Telmo Museoa Museo San Telmo

Kultur Etxeak Centros Culturales

Liburutegiak Bibliotecas

Musika Música

Ikastaroak Cursillos

Festak Fiestas

dFERIA

Erakusketak Exposiciones

Giza Eskubideen Zinemaldia Festival de Cine y Derechos Humanos

Victoria Eugenia Antzokia Teatro Victoria Eugenia

Zinema Cine

Dantza Danza

Antzerkia Teatro

Literatura

Heineken Jazzaldia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA KULTURA

# Aurkezpena


3 **Donostia Kultura**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481150 Fax: 943 483900

6 **Komunikazioa eta Irudia**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481161 Fax: 943 481969

**EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK**

8 **Victoria Eugenia Antzokia**
Argentinar Errepublika, 2
Tel.: 943 481160 Fax: 943 481969

10 **San Telmo Museoa**
Zuloaga plaza
(behin-behineko helbidea: Andereño Elbira Zipitria, 1)
Tel.: 943 481580 Fax: 943 481581

13 **Antzoki Zaharra**
Kale Nagusia, 3
Tel.: 943 481170 Fax: 943 481969

14 **Kultur Etxeak**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481159 Fax: 943 481190

16 **Casares-Tomasene Kultur Etxea**
Darieta bidea, 1 (Altza)
Tel.: 943 351149 Fax: 943 354046

17 **Altza Kultur Etxea**
Larratxo pasealekua, 55
Tel.: 943 396494 Fax: 943 354046

18 **Egia Kultur Etxea**
Baztan, 21
Tel.: 943 291514 Fax: 943 287219

19 **Ernest Lluch Kultur Etxea**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943 481919

20 **Larrotxene Kultur Etxea**
Intxaurrondo, 57 (Intxaurrondo)
Tel.: 943 291954 Fax: 943 292746

21 **Intxaurrondo Berri Kultur Etxea**
Gaztela-Castilla, 2
Tel.: 943 279343 Fax: 943 275241

22 **Loiola Kultur Etxea**
Aralar, 17
Tel.: 943 454605 Fax: 943 473498

23 **Lugaritz Kultur Etxea**
Heriz, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 Fax: 943 310782

24 **Okendo Kultur Etxea**
Nafarroa Etorbidea, 7
Tel: 943 290672 Fax: 943 290721

25 **Liburutegiak**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481749 Fax: 943 431895
**Unitate Tekniko Zentrala**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481162 Fax: 943 431895
**Liburutegi Nagusia**
Alderdi Eder
Tel.: 943 481488 Fax: 943 481490
**Liburutegi Nagusiko Haur Sekzioa**
Fermín Calbetón, 25
Tel. 943 481999 Fax 943 481195

**PROGRAMAZIOA**

30 **Musika**
Erregina Erregentea, 8
Tel: 943 481900 Fax: 943 483300

31 **Antzerkia eta Dantza**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 483860 Fax: 943 481969

32 **Zinea eta Bideoa**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

33 **Festak**
Konstituzio plaza, 1
Tel.: 943 481168 Fax: 943 481177

**JAIALDIAK**

39 **Heineken Jazzaldia**
Erregina Erregentea, 8
Tel: 943 481900 Fax: 943 483300

40 **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

41 **Giza Eskubideen Zinemaldia**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481157 Fax: 943 430621

42 **dFERIA**
Erregina Erregentea, 8
Tel.: 943 481183 Fax: 943 481969

44 **Literaktum**
Konstituzio plaza, 1
Tel: 943 481488 Fax: 943 481490

# Donostia Kultura

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**
Lehendakaria: Odón Elorza González
Lehendakariordea: Ramon Etxezarreta Aizpuru

Bokalak:
PSE-EE
Odón Elorza González
Ramon Etxezarreta Aizpuru
M.a Jesús Muñoz Peña
Marisol Garmendia Beloki
Arritxu Marañón Basarte

PP
José Luis Arrué Pintó
Ma José Usandizaga Rodríguez (* Carmen Rubio D Hyver ordezkatu zuen)

EAJ-PNV
Mertxe Garmendia Bereziartu

EB-B-A
Juan José Pérez

EA
Ricardo Burutaran Ferré

**ZUZENDARITZA TALDEA**

| | |
|---|---|
| Zuzendari-gerentea: | Antton Azpitarte |
| Administrazioa eta Kudeaketa: | Rebeka Gallastegi |
| Komunikazioa eta Irudia: | Jaione Askasibar |
| Produkzioa: | José Ignacio Abanda |
| San Telmo Museoa: | Susana Soto |
| Zinema: | José Luis Rebordinos |
| Musika: | Miguel Martín |
| Antzerkia eta Dantza: | Norka Chiapuso |
| Liburutegiak: | Arantza Urkia |
| Kultur Etxeak: | Jon Etxezarraga |

---

**BALANTZE EKONOMIKOA**

| **PROGRAMA** | **GASTUAK** | **SARRERAK**[1] |
|---|---|---|
| Administrazioa eta Kudeaketa | 521.863,74 € | 19.151.432,10 € |
| Komunikazioa eta Irudia | 429.252,68 € | 18.200,00 € |
| Liburutegiak | 918.780,76 € | 90.689,45 € |
| Kultur Etxeak | 2.779.931,60 € | 335.130,24 € |
| San Telmo Museoa | 864.261,50 € | 29.680,00 € |
| Victoria Eugenia Antzokia | (*) 3.545.739,20 € | 2.369.872,00 € |
| Antzoki Zaharra | 144.513,26 € | 36.050,00 € |
| Antzerkia eta Dantza | 317.383,56 € | 285.738,12 € |
| dFERIA | 196.405,62 € | 179.500,00 € |
| Zinema | 180.318,44 € | 171.930,00 € |
| Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astea | 306.177,08 € | 245.587,00 € |
| Festak | 2.887.887,28 € | 628.268,37 € |
| Musika | 258.417,80 € | 228.000,00 € |
| Jazzaldia | 1.598.307,20 € | 1.508.290,00 € |
| Guztira | 14.949.239,72 € | 6.159.985,73 € |
| Langileri gastuak | 8.659.127,56 € | |
| Inbertsio gastuak | 1.670.000,00 € | |
| **Guztira** | **25.278.367,28** € | **6.159.985,73** € |

[1] Udalaren ekarpena 19.118.381,55 €

---

**EMANDAKO DIRULAGUNTZAK**

**303 dirulaguntza**
**646.589 euro banatu dira kultur eta jai elkarteen artean**

# Donostia Kultura

**Donostia Kultura, Gipuzkoako lehen kultur eragilea**

Donostia Kultura Gipuzkoako lehen kultur eragilea da, eta, gure ustez, garrantzitsua da balantzea egiteko unean hori gogoratzea. **2008**. urteak erakundearen **sendotze juridiko eta organikoa** ekarri du; izan ere, urtealdi horretan lehen aldiz, Festen unitateak (KTE ohia) Musika unitateak (Musika Bulegoa ohia) eta Heineken Jazzaldiak Donostia Kulturaren egituran **erabat integraturik** jardun dute. Horrekin batera, Donostia Kultura Udal Patronatu izatetik Enpresa Erakunde Publiko izatera pasatu da.

**Hiru sari** jaso ditugu aurten: **Heineken Jazzaldia**ri **Musika Zabalkundearen saria** eman dio Musika Akademiak, eta Teledonostik, berriz, **Urteko Gipuzkoarra**. Gainera, arte eszenikoetako gure atariak, **victoriaeugenia.com**, **ikus-entzuleek Gipuzkoako web onenari** ematen dioten saria jaso du diariovasco.com III. Sarietan.

2008an, **hiru donostiarretatik bat Donostia Kulturako bazkide da dagoeneko**. Abenduaren 31n, alegia, **53.399 hiritarrek** zuten helduentzako DK txartel bietako bat. Hori gure hiriaren kultur eta partaidetza bokazioaren berme estatistikoa da. Hain zuzen, konfiantza handia dugu bokazio horretan, **2016an Europako Kultur Hiriburu** izateko lasterketan.




**Ekipamenduak eta zerbitzuak**

**Victoria Eugenia** Antzokia gune nagusia da gaur egun (San Telmo ireki aurretik). Antzokiak iazkoa izan du lehen urtealdi osoa, 2007ko martxoan berriro ireki zenetik, eta lehen mailako eszena-leku gisa sendotu da urte horretan. Ia **120.000 ikus-entzule** etorri dira, **299 emanalditan** banatuta. Nabarmentzekoak, **84 antzerki-emanaldiak** eta **75 musika-saioak**.

**San Telmo Museoa** berriro irekitzea, erabat berritu eta birsortu ondoren, da hiriak etorkizun hurbilean dituen kultur erronka nagusietako bat. Lanen eta prestaketen etapa honetan, ***Donostiari begira*** erakusketak izan duen harrera ezin hobea nabarmendu nahi dugu, 2008an urte osoan egon baita irekita Urgulleko Historiaren Etxean (94.400 bisitari).

Urteko erreferente garrantzitsu bat **Gazteszenaren 10. urtebetetzea**ren ospakizuna izan zen, programazio berezia izan baitzuen.

**Kultur Etxeei dagokienez**, kultura ahalik eta hiritar gehienei hurbildu ahal izateko baitaude Donostiako zazpi auzotan, 2008ko zenbakiak oso adierazgarriak dira.

- 727.774 erabiltzaile
  Zerbitzuetan (liburutegia, ikasteko aretoak, KZgunea...)
- 186.290 partaide
  programaturiko 2.630 jardueretan (hitzaldiak, ikuskizunak, eta abar)
- 5.829 matrikulatu udako eta neguko ikastaroetan parte hartu dutenak
- **919.893 erabilera hiriko kultur etxeetan izan diren zerbitzu edo jarduerenak**

**Udal Liburutegiek** (9 kultur etxeetan eta Alderdi Ederreko Liburutegi Nagusian zein Fermin Kalbetongo haur liburutegian dituzte zerbitzuak) **1.019.964 bisita** izan zituzten; batez beste, 3.411 eguneko. Nabarmentzekoa, denen artean, Alderdi Ederrekoa, 307.804 bisitari izan baitzituen. Gainera, **510.655** mailegu egin ziren; batez beste, 1.708 eguneko.

Literaturarekin zerikusia duten jarduerak gero eta gehiago dira, **DK Literatura** programari eta **Literaktum** Literatur Jaialdiari esker batez ere.

### Programazio unitateak



**Musikan**, bertako komunikabide batek 2008an Gipuzkoan entzute handiena izan duten 21 kontzertuen zerrenda eman du berriki. Horietatik, 12 Donostia Kulturako Musika Unitateak antolatu zituen: **Luz Casal, Mikel Erentxun, Ken Zazpi, Amaral, Bebo eta Chucho Valdés, Diego el Cigala, Al Kooper, Asa, Peter Hammill, Nick Cave & The Bad Seeds...**

**Antzerkia**ri eta **dantza**ri dagokienez, Donostian izan ditugu **Chekhov International Theatre** eta **Eifman** eta **Leipzig**eko **ballet**en muntaketa handiak, edota **Lindsay Kemp** eta **Peter Brook** britainiar ospetsuak. Euskal antzerkiko eta antzerki espainiarreko izen ezagunentzat ere izan da lekurik, bai eta formatu txikiagoko proposamenentzat ere.



Donostia Kulturaren **zine**-programazioa urtero antolatu ohi diren **jaialdiei** begira dago gero eta gehiago. Aurten, **proiekzio-formatu digitalen** sarrera izan da aipagarriena, produkzio, banaketa eta exhibizio erak aldatzen ari baitira.

Jaiei dagokienez, nabarmentzekoa **Kontxako Bandera emakumeei** ireki zaiela (mugarria kirolean eta gizartean, oro har), bai eta **Aste Nagusia ere, larunbatetik larunbatera**, eta jaietan **zapi txuri-urdina** banatu izana. Orobat, hunkigarria izan zen **Orfeoi Donostiarra**ren emanaldia **Danborradaren Jasoaldian, Gaztelubide** elkartearen **75 urteak** betetzen zirela eta.

### Jaialdiak



**dFERIA**k, Donostiako **Arte Eszenikoen Feria**k, 38.142 ikusle izan zituen edizio honetan, eta 500 profesionalek parte hartu zuten. Topaketa horren asmo gero eta handiagoez gainera (feria eta jaialdi, bietarik du), bi berrikuntza azpimarratzea komeni da: **izen-aldaketa** (dFERIA) eta, batez ere, Latinoamerikako antzerkia erakusteko eta trukerako topalekuaren sorrera, **Itinerarte** izenekoa.

**43. Heineken Jazzaldia**k erronka zaila zuen 2008an, Trinitateko Plaza gabe geratu baita; bere gune nabarmen bat gabe, alegia. Hori konpontzeko, espazio berriak ireki, zenbait berrikuntza egin (**Gaubira** eta **Open Mike**) eta inoiz baino ospetsu gehiago ekarri dira (**Keith Jarret, Chick Corea, Liza Minelli, Diana Krall, Bobby McFerrin...**).



*Utzidazu sartzen* film suediarrak irabazi zuen Ikusleen Saria **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinema**ren **Astea**ren azken edizioan. 16.495 ikusle izan ziren aretoetan, eta 44.157 jarduera guztietan.

Azkenik, **Giza Eskubideen Zinemaldia**k, orain egoitza nagusitzat Victoria Eugenia Antzokia hartuta, 15.000 ikusletik gora izan zituen joan den edizioan, eta **Elías Querejeta** omendu zuen, Giza Eskubideen Saria berari emanez.

# Komunikazioa eta Irudia

Kulturaren egunez egunekoan, Donostia Kulturak **etengabeko presentzia du komunikabideetan**, batez ere Donostiakoetan, **programazio askotariko eta zabala**ri esker. Izan ere, programazio horrek, udako jaialdi ezagunak ez ezik, urte osoko agenda bete du: antzerkia, musika, literatura, dantza, artea eta abar. Horrez gainera, hor dago kultura zerbitzuen eta liburutegien eskaintza zabala –egunerokoa eta deszentralizatua–, kultur etxeen sarearen bitartez. Zehazki, **5.000 inpaktu informatibo** izan dira prentsa idatzian. **Gaikako 237 dosierretan** jasota daude denak.



**Komunikazio euskarriak**

| | |
|---|---|
| Prentsaurrekoak | 291 |
| Literatur aurkezpenak | 62 |
| Programak (liburuxkak, kartelak, gonbidapenak) | 240 |
| Prentsa oharrak | 315 |

**Publizitatea**

| | |
|---|---|
| Prentsa idatziko iragarkiak | 400 |
| Irratiko tarte laburrak | 115 |
| Telebistako tarte laburrak | 395 |



**Webguneak**

Bistan denez, etorkizuneko apustua dira webguneak erakunde honetatik sustaturiko informazio bideen artean. Web berriak sortzeaz eta lehendik kudeatzen ditugunak **etengabe eguneratzeaz** gainera, Donostia Kulturak apustu irmoa egin du **parte hartze handiagoko komunikazio bideen alde**, komunikazio eredua sareen bitartez bultzatuz. Aurki, horien denen emaitzak zenbakitan ematea espero dugu.

| | Bisitak | Ikusitako orriak |
|---|---|---|
| Donostia Kultura | 155.462 | 325.852 |
| Victoria Eugenia | 140.958 | 495.989 |
| San Telmo Museoa | 78.558 | 2.461.378 |
| Heineken Jazzaldia | 254.586 | 807.643 |




Donostia Kulturak **Ikusleen Sari Berezia** jaso du **diariovasco.com III. Sarietan victoriaeugenia.com**, Donostia Kulturaren arte eszenikoen atariagatik. Bultzada ederra izan da erabakitako komunikazio ibilbidearentzat.

**Argitalpenak**

*Raoul Walsh (Nosferatu), Edward Yang (Nosferatu), David Lean (Nosferatu), animazio zinema japoniarra, 2000 maníacos.*





# Donostia Kultura txartela

Joan den abenduaren 31n, **53.399** bazkidek zuten Donostia Kulturak eskaintzen dizkien zerbitzu eta abantailez baliatzeko bidea: deskontuak ikuskizun eta ikastaroetan, maileguak liburutegietan, gonbidapenen zozketak, hileko kultur agenda etxeratzea eta abar. Abantaila horietako asko beste kultur eragile nagusietara (Aquariuma, Kutxagunea eta abar) eta jaialdietara (Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Musika Hamabostaldia eta abar) ere heda daitezke, esklusiban gure bazkideentzat. Abantaila sorta ederra Donostian baldintzarik onenetan kulturaz gozatzeko!

**6.399** alta izan dira 2008an, bazkidetzeko bi txartelen bitartez: Donostia Kultura eta Kutxa-Donostia Kultura





# Altzako Irrati Tailerra

CASARES IRRATIA 107.4 FM (24 orduko emanaldia)
2008an **8** ikastaro, **167** tailer eta **495** elkarrizketa eman dira.
**135** ikaslek parte hartu dute.



# Webs



donostiakultura.com



victoriaeugenia.com



museosantelmo.com



heinekenjazzaldia.com



donostiakultura.com/bibliotecas.php

# Victoria Eugenia Antzokia

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| **Victoria Eugenia Antzokia** | | | |
| Zinema | 80 | 91 | 29.136 |
| Musika | 39 | 43 | 28.053 |
| Dantza | 19 | 31 | 15.770 |
| Lirika | 1 | 3 | 1.180 |
| Antzerkia | 21 | 70 | 31.471 |
| Musikala | 2 | 10 | 6.694 |
| Bestelakoak | 3 | 3 | 2.325 |
| **GUZTIRA** | **165** | **251** | **114.629** |
| **Club Aretoa** | | | |
| Antzerkia | 9 | 14 | 1.446 |
| Dantza | 1 | 2 | 182 |
| Musika | 29 | 32 | 3.190 |
| **GUZTIRA** | **39** | **48** | **4.818** |
| **GUZTIRA** | **204** | **299** | **119.447** |



2008an gune hori **sendotu** egin da hirian, 2007an berriro ireki eta gero.

2008an, Victoria Eugenia Antzokiaren **musika-programazioak** aurreko denboraldian markaturiko ildoak sakondu ditu: **estiloen askotarikoa, era guztietako musikak, formatu berritzaileak** eta **izen handiak**. **Luis Eduardo Aute**k, esate baterako, bere hiru aurpegiak erakutsi zizkigun: musikaria, zinegilea eta poeta. **Mikel Erentxun**ek disko bat grabatu zuen zuzenean, antzokian eskainitako bi kontzertuetan. **Luz Casal**ek sekulako sasoia erakutsi zuen agertokietara berriro bueltatu den honetan. **CocoRosie** eta **Dakota Suitek**, berriz, pop anglo-saxoniarraren era berriak erakutsi zituzten. **Marlango**k bere magia leun eta liluragarrian bildu zituen entzuleak.



**Euskal musika** munduko musiken ordezkaritza ugariarekin batera agertu da, kolore eta kontinente guztietako musikarekin batera. Jazza ere izan da, jazzeko izen handiak. Laburbilduz, programari esker, Victoria Eugenia Antzokian ikusle bakoitzak gogokoen zuen musika aurkitu du. Denak baitzeuden han barruan.

**Dantza programazioak nazioarteko** maila du. Munduan zehar dabilenaren onena ematen da Victoria Eugenia Antzokian, hartarako lekurik badago. Oso garrantzitsua da irekitako programazio ildoa; izan ere, nazioartean dabiltzan **euskal dantzariak** pasatuko dira beren balletekin. Lucía Lacarra izan zen lehena, eta aurten **Itziar Mendizabal** (Leipzig Ballet) izan da gure artean. **Iratxe Beorlegi** (Compañía Nacional de Danza de México) eta **Jon Vallejo** (Dresdengo Operako Balleta) etorri dira, biak ere Dantza Profesionalen Elkarteak Antzokiarekin batera antolatutako Galan. **Ballet Biarritz**ekiko lankidetzak ikuskizun berriaren koprodukzioa ekarri du, *El amor brujo* (Luxenburgo Hiriko Antzerki Handia, Saint-Etienneko Opera eta Reimseko Antzerki Handiarekin, besteak beste), eta horrek Europako mapa koreografikoan jarri gaitu. Orobat, Blanca Li, Leipzigeko Balleta, Eifman Ballet, Antonio Márquez, Japoniako Batik eta beste hainbat izan ditugu.



# Victoria Eugenia Antzokia

**Antzerki programazioak oreka** bilatzen du proposamen konbentzionalen eta berritzaileen artean; proposamen klasikoak eskaini nahi ditu, baina ikuspegi garaikide eta gaur egungotik. Orobat, Espainiako artista handiak ekarri nahi ditu Victoria Eugenia Antzokira. Bide horretatik izan dugu hainbat ikuskizunez gozatzeko parada: *Hamlet*, **José Coronado** eta **Juan Diego Botto**rekin, *El guía del Hermitage* (Kutxa Donostia Hiria Saria), **Federico Luppi**rekin, *Sonata de otoño*, **Marisa Paredes** protagonista zelarik, edo *El burlador de Sevilla*, **Fran Perea**k gorpuztua. Muntaketa ahaztezina izan zen *El Rey Lear*, Gerardo Veraren zuzendaritzapean eta **Centro Dramático Nacional**ak ekoitzita. Gogoratzeko moduko beste ikuskizun bat *Noche de Reyes* izan zen, Donnellan-ek zuzendua eta Chekhov International Theatre Festival errusiar konpainiak koproduzitua, oraingoan jatorrizko bertsio azpidatzian. Izan dira umore une ederrak, **Faemino y Cansado**ren umore oso bereziarekin, edo *Una pareja de miedo* obran (Josema Yuste eta Florentino Fernández aktore lanetan).

**Lirika** Teatro de la Zarzuelarekin izandako lankidetzari esker etorri zaigu, ospe handiko bi titulu ekartzeko bidea eman baitzigun: *La Revoltosa* eta *Las bribonas*. Bestalde, modako musikalaren estreinaldi ofiziala egin dugu, *High School Music*, eta antzokia funtzio guztietan bete zen.

Logikoa denez, Antzokia hiriko erreferentzietako bat bihurtu da. Donostia Kulturak antolatzen dituen **jaialdiez** gain (Heineken Jazzaldia, Giza Eskubideen Zinemaldia, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinema Astea), Victoria Eugenia Antzokia bada ere Zinemaldiaren eta Musika Hamabostaldiaren egoitza.









# San Telmo Museoa

**• BILDUMAK**
Museoaren inbentarioa:
Objektuak
Arkeologia 643
Arte Ederrak 6.302
Etnografia 5.358
Argazkiak 8.500
Historia 2.254
GUZTIRA 23.057

2008. urtean, Museoa **piezak erosten** hasi da, bilduman **izari gutxien dituzten alor edo aldiak** osatzeko xedez. Urtean zehar, gainera, partikularrek **dohaintzan emandako 73 pieza** jaso dira.

**• BISITARIAK**
**Museoa** bisitarientzat **itxita** dagoenez, banakako bisiten atalean Urgulleko **Historiaren Etxekoak** baizik ez dira zenbatu. Taldeen bisitei dagokienez, Urgullekoez gainera, kalean egiten diren programak sendotu dira, eta eskaintza zabaldu egin da.

Kaleko jarduerak:
Taldeak 71
GUZTIRA 1.693

Urgull:
Bakarkakoak: 92.081
Taldeak 111 (2.310 erabiltzaile)
GUZTIRA 94.391

**• URGULL**
San Telmo Museoak bere gain hartu du 2008an Urgull Mendian egiten den **eskaintzaren koordinazioa**. Ohiko irekitze egunez gainera —urte osoan Historiaren Etxearentzat, udan Natur Txokoa eta Liburutegiarentzat—, aurten, lehen aldiz, hiru zentroak irekita egon dira Aste Santuan. **Historiaren Etxea**ri dagokionez, azpimarratu beharra dago ***Donostiari begira*** erakusketak izan duen **harrera bikaina**, urte osoan egon baita irekita. 2007an inauguratu zenetik, hainbat hobekuntza egin dira erakusketan —azpimarragarriena hiriari eta jaiei buruzko ikus-entzunezkoa—, eta gainera egokitu eta hobetu egin da eskolei zuzendutako eskaintza didaktikoa.

**• DOKUMENTAZIOA ETA ARTXIBOA**
Aurten **100 kontsulta eta eskari baino gehiago**ri erantzun zaie. Gehienak Museoko bilduma edo piezei buruzko kontsultak izan dira, bai eta hainbat eskari ere, zenbait argitalpenetan irudiak erreproduzitzeko baimena emateko. Gainera, Museoko **aktak digitalizatu** dira, **1899tik 1964ra** bitartekoak, eta erabiltzaileen eskura jarri dira webean.

**• ZAHARBERRITZEA**
2008an **tratamendu antixilofagoa** egin zaie hainbat fondori, shock termikoaren prozesuaren bitartez. Tratamendu horrek hartu ditu: tailuak eta altzariak, armak, markoak, Diderot Entziklopedia eta etnografiako pieza guztiak. Orobat, presazko **kontserbazio esku-hartzeak** egin dira **margolanetan**.

Horien artean, desintsekzioa, bastidore aldaketa eta sendotzea nabarmendu behar dira.

**• LANKIDETZAK**
Aurreko urteetan bezala, Museoak **"la Caixa" Fundazioa**rekin lankidetzan jardun du erakusketa bat antolatzen. Kasu honetan, **Zientzia mundu andaluziarrean** izenekoa izan da, eta Saguesko zabalgunean egon zen ikusgai, apiriletik ekainera bitartean. San Telmok, gainera, lanean jarraitzen du **museoen sarean. Hiriko zazpi museo**ek hainbat lankidetza-egitasmo garatu dituzte berriz ere. Besteak beste, Museoen Nazioarteko Eguna eta Gabonak Zuretzat programa, zeinak sareko museoen eskaintza koordinatua izan baitu.





# San Telmo Museoa

**• ERABERRITZE EGITASMOA**
Bestela ezin zitekeen izan: San Telmo berregokitze eta zabaltze egitasmoari eman zaio osorik 2008an. **Lanak** aurreratu ahala, **aurkikuntza interesgarriak** egin dira eraikin historikoan. Nabarmentzekoak, XVI-XVII. mendeetako hilobiratzeak, Kapitulu gelan, eta XVI. mendeko kripta, elizan. Bestalde, aurten **edukiak zehaztuz joan dira**; euskal gizartea sakonago ezagutzeko bidea emango duen museoa bihurtuko da San Telmo. Horrekin batera, **lehiaketa** egin da San Telmoko ekipamendu museografikoak **diseinatu, hornitu, instalatu eta aldi baterako mantentzeko**. Bost enpresak aurkeztu dituzte proposamenak.

Egindako lanen artean, ezin aipatu gabe utzi **erakustaldi iraunkorrean ikusgai jarriko diren piezak hautatzeko prozesuaren hasiera**, bai eta pieza horien zaharberritzea ere, hala behar izan denean.

**• BESTE UDAL ONDARE BATZUK**
Nabarmentzekoak dira udal ondarearen gainean egindako eguneratzeak. Batetik, Museoa **Aieteko Jauregia husteaz** arduratu da, hango lanak hasi ahal izan daitezen; bestetik, **hiriko eskultura publikoaren azterketa** egin du, piezen egoera ikusteko eta komeni diren esku-hartzeak gomendatzeko. Lan horren ondorioz, **Okendo Almirantearen eskultura** zaharberritu da, Okendo plazan dagoena.











# Aldi baterako erakusketak

**Kultur Etxeak**

| | kopurua | bisitariak |
|---|---|---|
| Pintura | 25 | 13.283 |
| Artisautza | 7 | 2.506 |
| Marrazkia | 4 | 5.291 |
| Argazkiak | 14 | 11.595 |
| Tematikoak | 25 | 17.144 |
| Hainbat | 6 | 2.784 |
| **GUZTIRA** | **81** | **52.603** |

**Victoria Eugenia**

| | kopurua | bisitariak |
|---|---|---|
| Argazkiak | 1 | 2.000 |
| **GUZTIRA** | **1** | **2.000** |

**Liburutegiak**

| | kopurua | bisitariak |
|---|---|---|
| Artisautza | 1 | 170 |
| Marrazkia | 2 | 730 |
| Argazkiak | 1 | 978 |
| Tematikoak | 10 | 4.871 |
| **GUZTIRA** | **14** | **6.749** |

**Jarduerak eta argitalpenak**: guztira **11 jarduera** egin dira, eta **10 argitalpen** editatu, aldi baterako erakusketekin zerikusia dutenak, kultur etxeetan.

Jarduerak:kultur etxeak, 11

Argitalpenak:kultur etxeak, 10

Jarduera horietan parte hartu dutenak: kultur etxeak, 436

Aurreko urteetan bezala, Donostia Kulturak **aldi baterako erakusketen eskaintza askotarikoa** izan du. 2008an, era horretako erakustaldiak ez dira egin San Telmo Museoan, berregokitze eta zabaltze egitasmoaren lanetan ari baitira bertan, barne-lanaz gainera. Oroitza txosten honetan kontuan hartu dira, beraz, **kultur etxeetan** egin diren erakusketak. Horien artean, alorrean duen espezializazioagatik, **Okendo Kultur Etxea** nabarmendu da.

Kultur etxeen datuei, oraingo honetan, **beste espazio batzuetan** egindako erakustaldienak gehitzen zaizkie. Hain zuzen, Liburutegi Nagusian, San Jeronimo kaleko Ekitaldi Aretoan, Liburutegi Nagusiko Haur Sekzioan —Fermin Kalbeton kalean— Egia, Ernest Lluch eta Loiola kultur etxeetan eta Victoria Eugenia Antzokian.








# Antzoki Zaharra

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| dFERIA | 7 | 8 | 2.206 |
| **GUZTIRA** | **7** | **8** | **2.206** |
| | | | |
| **Neguko antzerkia:** | | | |
| Antzerkia | 12 | 29 | 6.295 |
| Haur antzerkia | 3 | 3 | 341 |
| Dantza | 1 | 1 | 267 |
| Beldurrezko kale antzerkia | 2 | 3 | 7.500 |
| Gazte antzerkiaren erakustaldia | 13 | 13 | 1.249 |
| Nosferatu | 30 | 30 | 4.369 |
| Fantasiazko eta Beldurrezko Zinema Astea | 55 | 55 | 9.750 |
| Giza Eskubideen Zinemaldia | 2 | 6 | 1.899 |
| Surfilm festibal | 32 | 32 | 3.046 |
| Ziklo eta saio bereziak | 11 | 11 | 2.102 |
| Tinko (zinea: eskolentzako paseak) | 39 | 39 | 9.440 |
| **GUZTIRA** | **200** | **222** | **46.258** |
| | | | |
| **Udako antzerkia:** | | | |
| Antzerkia | 8 | 61 | 16.612 |
| Lirika | 3 | 5 | 1.630 |
| **GUZTIRA** | **11** | **66** | **18.242** |
| | | | |
| **GUZTIRA** | **211** | **288** | **64.500** |
| | | | |
| Alokairuak | 8 | | |
| Kolaborazioak | 5 | | |
| Entseguak | 15 | | |
| **EGUNAK GUZTIRA** | **28** | | |





Kale Nagusiko antzokia oso ondo **egokitu da** Donostiako egoera eszeniko berrira. Egoera horri esker, antzoki bakoitzak eginkizun erabakigarria bete dezake, batzuek besteak osatuz hiriko eta probintziako arte eszenikoen alorrean.

2008ko **Udako Antzerki Denboraldian**, programazioa beste denboraldi batzuetakoaren antzekoa izan da kalitatez, antzerki espainiarreko ospetsuen presentziaren aldetik, eta erakarmenaren aldetik ikus-entzuleentzat. 2006. urtea errekorren urtea izan zen. Hala eta guztiz ere, 2007an 16.909 ikusle izan ziren, eta 2008 honetan, berriz, are gehiago: **18.242 ikusle**. Horri esker, Donostia antzeztoki nagusietako bat da Udako Antzerkiari dagokionez Espainia osoan. **Lola Herrera, Arturo Fernández, Juanjo Artero, Esperanza Pedreño**, besteak beste, aritu dira Antzoki Zaharreko agertokian.

**Neguko denboraldian**, ikusleen erantzuna oso interesgarria izan da: **46.258 ikusle. La Zaranda, Tanttaka, Ados Teatro, Txalo Produkzioak** konpainiek aurkeztu dituzte beren proposamenak areto horretan. Eskaintza neurtu eta gero, ikusleen batez bestekoak gora egin du aurreko denboraldien aldean. Antzerkiak donostiarren artean sortzen duen interesaren erakusgarri nabarmena da hori.

Helduei zuzendutako euskarazko antzerki-proposamenen programazioa sendotuz doa, bai eta **Donostia Antzerki Saria** ere, euskaraz helduentzat eskainitako ikuskizun onenari ematen baitzaio, Donostiako agertokietan aurreko urtean izandakoen artean. Azpimarratzekoa da **Euskararen Udal Patronatuak** eta Donostia Kulturan elkarrekin egindako lana. Edizio honetan, saria **Tanttaka**ren ***Emakumeak izarapean*** gaur egungo ikuskizunari eman zaio. Obra hori Antzoki Zaharrean eman zen 2007. urtean, baina Sariaren Gala Victoria Eugeniara eraman zen.

**Zine** programazioari dagokionez, nahitaez nabarmendu beharrekoak dira **Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**k beste edizio batean ere lortutako arrakasta handia eta **Surfilm Festibala**ren sendotzea.

Esan dezakegu ezen, Antzoki Zaharrean 2008an guztira **211 jarduera** antolatu ondoren, ekipamendu horrek oso okupazio eta errentagarritasun maila onargarriak dituela. **64.500 lagun** etorri dira. Victoria Eugenia irekitzeari esker, Antzoki Zaharrak bere lekua hartuko du eta berari dagokion programazioa garatu ahali zango du, naturalagoa, antzoki handi baten faltak behartu gabea, eta gune dinamiko, gazte eta programazio ildo zehatzekoari dagokiona. Horra, bada, datozen urteetan antzoki horrek aurrean izango dituen erronkak.

# Kultur Etxeak
## (Kultur Ekintza)

Kultur Ekintzako Zerbitzuaren **helburu nagusia** hiritar guztiei kultur zerbitzuen eta jardueren aukera zabala eskaintzea da, kultur ekipamendurako sare baten eta esku-hartzeko hainbat programaren bidez.

**Donostiako zazpi auzotan dauden bederatzi zentrok** osatzen dute kultur etxeen sarea:

Casares-Tomasene eta Altza Kultur Etxeak (Altzan)
Okendo Kultur Etxea (Grosen)
Larrotxene eta Intxaurrondo Berri Kultur Etxeak (Intxaurrondon)
Loiola Kultur Etxea (Loiolan)
Lugaritz Kultur Etxea (Antiguan)
Egia Kultur Etxea (Egian)
Ernest Lluch Kultur Etxea (Amaran)

Kultur etxe horietatik 2008an eskainitako **jarduera eta zerbitzu** kopuruen eta horietaz baliatu diren erabiltzaileen datuak honako hauek dira

| **JARDUERAK** | **Kop.** | **Erabiltz.** |
|---|---|---|
| Antzerkia | 232 | 29.949 |
| Dantza | 28 | 6.963 |
| Zinema | 109 | 13.274 |
| Bideoa | 87 | 4.005 |
| Musika | 121 | 19.990 |
| Hitzaldiak | 131 | 6.072 |
| Erakusketak | 83 | 53.805 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 1.229 | 25.063 |
| Aretoen alokairuak | 63 | 9.362 |
| Liburutegiko jarduerak | 465 | 9.196 |
| Hainbat | 72 | 9.875 |
| **GUZTIRA** | **2.620** | **187.554** |

| **ZERBITZUAK**[1] | | erabilerak |
|---|---|---|
| Visitas Biblioteca | | 611.499 |
| Ikasgela | | 8.672 |
| Edonostia.net (Internetera sarbidea)[2] | | 6.895 |
| KZgunea (Internetera sarbidea)[3] | | 71.032 |
| KZgunea (IT Txartela)[4] | 694 froga | 5.443 |
| **GUZTIRA** | | **703.541** |

| **PRESTAKUNTZA** | **Kop.** | **Erabiltz.** |
|---|---|---|
| 2008-2009 ikastaroak[5] | 155 | 2.351 |
| Ikastaro puntualak | 73 | 1.203 |
| Udako ikastaroak | 3 | 40 |
| KZguneko ikastaroak | 171 | 1.536 |
| Edonostia.net ikastaroak | 68 | 699 |
| **GUZTIRA** | **470** | **5.829** |

1 Espezializazioei dagozkien zerbitzuak (irratia, bideoa...) kultur etxe bakoitzaren atalean adierazten dira.
2 Donostiako Sustapena udal elkartearekin lankidetzan kudeatua. Loiola eta Larrotxene kultur etxeetan.
3 Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan kudeatua. Ernest Lluch, Egia, Casares-Tomasene, Okendo eta Lugaritz kultur etxeetan.
4 Informazio Teknologietako oinarrizko gaitasunen egiaztagiria.
5 Astean saio bat, urritik abendura. 2007an hasi eta 2008an amaitutako ikastaroak ez dira jaso prestakuntza atalean.

Programazioari dagokionez, jarduera hauek nabarmen daitezke: ***Poltsikoko Antzerkiaren Jaialdia, Zinea Kalean*** eta ***Antzerkia Kalean*** programak, antzerki, musika eta dantzako programazio egonkorra (heldu, gazte zein haurrentzat), ***Bideoaldia, Abesbatzen Astea, Literaktum***, eta abar. Hau da, jarduera-sorta zabala, herritarren kultur eskaera eta kezkei erantzuteko asmoa duena.

Lurraldean esku-hartzeaz gainera, Zerbitzuaren eginkizuna da populazioaren gizatalde batzuei eta besteei arreta eskaintzea. Alde horretatik, populazio sektore jakin batzuei bideratutako kultur zerbitzu eta jarduerak eskaini dira, haien ezaugarri eta beharrei egokituak.





# Kultur Etxeak
## (Kultur Ekintza)

Hori dela eta, **Udaleko beste alor batzuekin lankidetzan**, azken urteotan honako zerbitzu hauek integratu dira kultur etxeetan:

### Haurtxoko

Egun hirian diren sei udal haurtxokoetatik, **Amara, Antigua eta Groseko haurtxokoak** daude integratuta auzo horietako kultur etxeetan. Lauzpabost urtean funtzionatu ondoren, egiaztatu da 6 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutako zerbitzuak direla, auzoetan sendotzea lortu dutela eta erreferentziako heziketa gune garrantzitsuak direla (eta herritarrek halakotzat jotzen dituztela).

### Gazteleku

Udal gaztelekuak ere sei dira, eta 13 eta 17 urte arteko nerabeentzako zerbitzuen sarea osatzen dute gaur egun. Kasu honetan, **Amara, Antigua, Egia eta Groseko gaztelekuak** daude integratuta auzo horietako kultur etxeetan. 2008.eko urtean ere, nabarmentzekoa da zerbitzu horietan parte hartzea handia izan dela, eta errealitate desberdinetako gazteen arteko integrazioari bide ematen dioten guneak bihurtu direla. Hain zuzen, udal gaztelekuen egitasmoaren helburu nagusietako bat da hori.



### Musikagela

Zerbitzu hau **entsegu-aretoak** aldi baterako uzteko da. **Egia Kultur Etxean** dago eta hirian diren musika anplifikatuko taldeentzat pentsatua da. Zazpi saio-areto intsonorizatuk osatzen dute, DJentzako lantegia eta biltegi bat, zerbitzua erabiltzen duten taldeek musika tresnak non gorde izan dezaten. 2008an okupazio handia izan du.

### Plus 55

**Gizarte Ongizaterako atalak eta Donostia Kulturak** sustatzen dute zerbitzu hau. **55 urtetik gorakoentzako aisialdi programa** da, hiriko kultur etxeetan eskaintzen da eta gizatalde horretako boluntarioek bultzatu eta egindako ekimenei eta egitasmoei laguntzea du helburu, bai eta 55 urtetik gorako pertsonen artean kultur etxea sozializazio gune gisa sustatzea, bertako jarduera eta zerbitzuen bitartez.

2008an zehar, Plus 55 **nabarmen tinkotu da**. Batetik, hainbat jarduera egin dira askotariko premiei erantzuteko, hala nola: ***Larunbatak dantzan. Ibilaldiak Donostian, Gimnasia hondartzan, Narratzaileen Txokoa, Osasun Jardunaldiak, Artea***, eta abar. Bestalde, hainbat elkarte eta erakunderekin lankidetza izan da, beste ekimen batzuetan aholku eman eta aurrera ateratzeko.

2008an hirian aisialdirako dagoen eskaintza ezagutzeko interesa duten pertsona nagusi guztiek baliabide hori eskura izan dezaten ahalbideratu da. Guztira, **1.551 kontsultari erantzun zaie**.

Hona hemen programaturiko jardueren bitartez zerbitzu horietaz bertan baliatu diren **erabiltzaileen kopurua**:

| **SEKTORE ZERBITZUAK** | **jarduerak** | **Erabiltz.** |
|---|---|---|
| Haurtxokoa | 207 | 6.883 |
| Gaztelekua | 204 | 5.018 |
| Plus 55 | 234 | 7.805 |
| Musikagela | 37 (talde) | 4.527 |
| **GUZTIRA** | | **24.233** |

Orobat, Kultur Ekintzako Zerbitzutik, eta beste atal eta erakunde batzuekin lankidetzan, **populazio sektore jakin batzuei** zuzendutako jarduerak diseinatzen eta programatzen dira kultur etxeetan. Hona hemen programa horien adibide batzuk: ***Gaztemaniak!, Donostia Munduen Artean, Gabonak Zuretzat, Irudi Biziak, Larunbatak Dantzan, Literatur Hitzordua, Emakumeen Asteak*** eta abar. Aurten, bereziki gazteei zuzendutako programa gisa, nabarmentzekoa da ***Donostikluba Zirkuitua***k izan duen harrera ezin hobea. Programa hori urriko Jaialdiarekin osatzen da.

Azkenik, inguruan kultur etxerik ez duten aldeetan, **lankidetza hitzarmenak** sinatzen dira **bertako elkarteekin**, alde horietan kultur programa eta jarduerak garatzeko. 2008an honako hitzarmen hauek sinatu dira:

- Igeldoko Herri Kontseilua (Igeldo auzoa)
- Etxadi Kultur eta Kirol Elkartea eta Lantxabe elkartea (Aiete auzoa)
- Añorga Kultur eta Kirol Elkartea (Añorga auzoa)
- Mundo Nuevo Elkartea (Amara Zaharra auzoa)
- Zubietako Herri Batzarra (Zubieta auzoa)

# Casares - Tomasene Kultur Etxea

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 12 | 2.617 |
| Zinema | 3 | 1.140 |
| Bideoa | 15 | 482 |
| Musika | 6 | 1.066 |
| Hitzaldiak | 11 | 430 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 31 | 384 |
| Erakusketak | 3 | 151 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 178 | 1.522 |
| Aretoen alokairua | 1 | 140 |
| Liburutegiko jarduerak | 38 | 534 |
| Hainbat[6] | 5 | 465 |
| **GUZTIRA** | **303** | **8.931** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 52.700 |
| Plus 55 (jarduerak) | 37 | 562 |
| KZgunea | | 9.788 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 115 | 693 |
| **GUZTIRA** | | **63.743** |

Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua 47

| IRRATI TAILERRA | | |
|---|---|---|
| Ekoitzitako irrati programak | 30 | |
| Egindako elkarrizketak | 495 | |
| Irrati tailerraren erabiltzaileak | | 167 |

Aurtengo programazioan sartutako berrikuntzen artean, ***Hileko gaia*** nabarmenduko genuke. Hitzaldi eta proiekzio formatua du, eta liburutegiak gai jakin bati buruz dituen fondoen gida bat ematen da.

**Tomasene** eraikina Altzako kultur ekintzara gehitzeari esker, Casaresko zenbait espazio erakusketak egiteko eta ikastaroen eskaintza zabaldu ahal izan da. **Casares Irratitik**, prestakuntza proposamen interesgarria egin zaie gazteei, komunikazioaren esparrua gehiago azpimarratuz.

Bertako ekoizpenerako espazio berriak sendotzea, hala nola ***LiburuDK*** kultur zabalkundekoa, edo bertako musika taldeak sustatzeko ***Maketaldia***, bai eta ***Antzerkia Airean*** irrati fikziogintzako Lehiaketaren III. Edizioa dira aurten aipagarrienak Casares Irratian. Kultur eta gizarte irrati izateko asmoaren ildotik, bere programazioari hainbat ekitaldi zuzenean ematea gehitu du, Donostia **2016an Europako kultur hiriburu** izateko hautagaitzaren inguruan.

Altzako **tokiko bilduma**, Casares-Tomasene Kultur Etxeak bultzatzen du **Altzako Historia Mintegia**rekin batera. 2008an, 6.000 dokumentu biltzera iritsi da. Donostiarren eskura daude denak ere.

Programa eta zerbitzu horiei **Osasun Jardunaldien** estreinaldia gehitu behar zaie. **Plus 55etik** programatu da, eskualdeko osasun zentroaren lankidetzarekin.









6 Bertso Afaria, Hinchables, Antzerkia Airean III. Lehiaketa, sari banaketa.

# Altza Kultur Etxea

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 9 | 1.297 |
| Dantza | 3 | 944 |
| Bideoa | 2 | 395 |
| Musika | 11 | 1.448 |
| Hitzaldiak | 2 | 158 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 6 | 108 |
| Erakusketak | 1 | 578 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 233 | 6.449 |
| Aretoen alokairua | 1 | 160 |
| Hainbat[7] | 7 | 284 |
| Liburutegiko jarduerak | 25 | 368 |
| **GUZTIRA** | **300** | **12.189** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitak | | 19.467 |
| Plus 55 (jarduerak) | 12 | 1.045 |
| **GUZTIRA** | | **20.512** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 4 | |

Programazioaren muina **haur antzerkia eta musika** izan dira. Txikienentzat, eskaintza zabala izan da berriz ere: txotxongiloak, magia eta formatu handiagoko muntaketak. Antzerkiaren sailetik irten gabe, ekimen guztiz berri bat nabarmenduko genuke: zeinu hizkuntzazko antzerkiaren eguna.

Musika programazioa gazteenei zuzendu zaie batez ere, eta hainbat musika estilo hartu ditu. Lehendik sendotutako jarduerei (***Etengabeko Zarata*** edo ***Heavy Jaia***), berriz ere ***Donostikluba Zirkuitua*** gehitu zaie. Shotta eta Duendeasek jardun dute bertan.

Urtean zehar, Kultur Etxeak **hainbat elkartek egiten dituzten jarduera ugari eta askotarikoak** hartzen ditu. Donostia Kulturako ikastaroei gehitzen zaizkie horiek. Hala, Altzak emakume elkarteen ikastaroei ireki dizkie ateak, Inauterietako konpartsen saioei, Danborradakoei... Sevillana Jaialdia, Emakumearen Astea, Mijadaskoen topaketa, Jai Solidarioa edo Zaharren Elkarteen Topaketa, horiek denek islatzen dute kultur etxe hau, urtez urte, topaleku garrantzitsua dela herritarrentzat.

Ohikoa denez, **Plus 55** zerbitzuak bere programa nabarmenenetako batzuk egiten ditu kultur etxean, hala nola ***Larunbatak Dantzan*** edo helduen antzerkia.

Azkenik, Larratxoko Liburutegiak bere eskaintza sendotuz jarraitu du, bai haurrentzat eta bai helduentzat, eta hazi egin dira fondoen eta erabiltzaileen kopuruak.










7 Emakumearen Astearen inaugurazioa eta Emakumearen Asteko tailerrak.

# Egia Kultur Etxea

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 52 | 8.097 |
| Dantza | 20 | 3.966 |
| Zinema | 3 | 600 |
| Bideoa | 1 | 25 |
| Musika | 46 | 10.412 |
| Hitzaldiak | 14 | 289 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 26 | 360 |
| Erakusketak | 18 | 8.777 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 67 | 761 |
| Alokairuak | 21 | 7.233 |
| Liburutegiko jarduerak | 57 | 1.370 |
| Hainbat[8] | 2 | 528 |
| **GUZTIRA** | **327** | **42.418** |

| ZERBITZUAK | | | erabilerak |
|---|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | | 49.204 |
| Gaztelekua (jarduerak) | | 45 | 5.007 |
| Ikasgela | | | 7.260 |
| Musikagela | Talde kop. | 37 | 4.527 |
| Kzgunea | | | 7.089 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | | 119 | 904 |
| **GUZTIRA** | | | **73.991** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | | 30 | |











Egia Kultur Etxeak, eskaintzen dituen jarduera eta zerbitzuen bidez, **gune dinamikoa** eta partaidetzara **irekia** izaten jarraitzen du, bai Egia auzoarentzat eta bai hiri osoarentzat.

Aurten **Gazteszenaren hamargarren urtebetetzea** ospatu dugu. Antzoki horretan, musika, dantza eta antzerkiko ikuskizun garaikideak izaten dira, eta urte hauetan guztietan ikus-entzule gazteentzako topaleku bihurtzea lortu du.

Gazteszenako programazioarekin batera, **Musikagela** saio-aretoek, **Espaziarte**k eta **TAE**ren (Arte Eszenikoetako Tailerraren) aretoek gazteen prestakuntza eta arte sorkuntza bultzatzeko asmoa duen multzoa osatzen dute.

Horrez gainera, **KZgunea, Gazteleku, ikasteko gela, liburutegia** zerbitzuek bere hartan jarraitzen dute, alegia ezagutza garatzeko eta herritarren aisia sormenez aprobetxatzeko guneak eskaintzen.

Orobat, urtean zehar programaturiko hainbat jarduerak kultur ekoizpenak (kale zinema eta kale antzerkia, poltsiko antzerkia...) hiriaren erdigunetik kanpoalderantz ateratzeko balio izan dute.

Azken buruan, 2008. urtean hainbat kolektibok dinamika gazte eta proposamen berrietara irekian parte hartzea izan da Kultur Etxearen ezaugarririk aipagarriena.

8 Musika Eskolaren saioak, Victoria Eugenia Antzokian obra bat emateko.

# Ernest Lluch Kultur Etxea
## (Amara)

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 19 | 2.480 |
| Dantza | 1 | 25 |
| Zinema | 3 | 680 |
| Bideoa | 26 | 1.402 |
| Musika | 7 | 456 |
| Hitzaldiak | 19 | 607 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 22 | 364 |
| Erakusketak | 13 | 3.209 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 419 | 10.773 |
| Aretoen alokairua | 26 | 628 |
| Liburutegiko jarduerak | 109 | 1.793 |
| Hainbat[9] | 8 | 128 |
| **GUZTIRA** | **672** | **22.545** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 158.958 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 62 | 5.636 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 49 | 6.826 |
| Plus 55 (jarduerak) | 60 | 1.885 |
| Ikasgela | 86 | 1.412 |
| KZgunea | | 21.521 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 139 | 1.095 |
| **GUZTIRA** | | **197.333** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 46 | |

Berriz ere azpimarratu behar dugu Kultur Etxeak **topaleku garrantzitsua** izaten jarraitzen duela. Hainbat **elkartek** bilerak egiten dituzte bertan, eta **kalitatezko** zerbitzu integratuek (**Liburutegia, KZgunea, Haurtxokoa, Gaztelekua, Plus 55 eta ikasteko gelak**) lanean jarraitzen dute etengabe gizarte eta kultur garapenean, eta aldi berean aisialdia bizi izateko hainbat modu eskaintzen dituzte.

Aurten egin diren zenbait **erakusketa** nabarmentzen dira, hala nola ***Fregonari bueltaka. 1958 - 2008***, ***Elnako amaetxea, Yosigo*** eta ***Ernest Lluch: herri bat eraikitzeko esfortzua***.

Beste jarduera batzuei buruz, Kultur Etxean zein kanpoan egin ohi direnez gainera, distira berezia izan dute ***Literaktum***en laugarren edizioak, **Mauro Entrialgo** izan baita bertan; aipamena merezi dute ***DK Literatura*** programan izan diren hainbat autorek, hala nola **David Trueba, Iban Zaldua, Rafael Reig** edo **Javier Moro**. Antzeko esparruan, **Erakusleihoa**k ere sendotu egin du ospea, formatu txikiko proposamen diziplinarteko eta esperimentalak eskainiz ikus-entzuleei. ***Narratzaileen Txokoa-El Txoko del Narrador*** programari ere ongi etorri beroa egin zaio.









9 Erakusketetako bisita gidatuak, Donostia Kulturaren bilera, prentsaurrekoak, telebista programa baterako eztabaida foroa.

# Larrotxene Kultur Etxea

| **JARDUERAK** | **Kop.** | **Erabiltz.** |
|---|---|---|
| Antzerkia | 12 | 1.186 |
| Zinema | 2 | 350 |
| Bideoa | 14 | 812 |
| Musika | 7 | 554 |
| Hitzaldiak | 9 | 413 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 12 | 241 |
| Erakusketak | 3 | 574 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 29 | 395 |
| Liburutegiko jarduerak | 65 | 2.104 |
| **GUZTIRA** | **153** | **6.629** |

| **ZERBITZUAK** | **erabilerak** |
|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | 20.284 |
| Edonostia.net | 1.482 |
| **GUZTIRA** | **21.766** |

Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua 24

| **BIDEO TAILERRA** | **Kop.** | **Erabiltz.** |
|---|---|---|
| Gidoi aholkularitza | 47 | 47 |
| Ekoizpenak | 19 | 117 |
| **GUZTIRA** | **66** | **164** |

2008. urtea garrantzitsua da, **inflexio puntua** izan delako Larrotxene Kultur Etxearentzat, batez ere **ikus-entzunezkoetan espezializatzearen** aldetik; izan ere, planteamendu berria eta berritzailea egin da haur ikastaroetarako eta Bideo Tailerraren antolamendurako.

Ikus-entzunezkoen arloan, nabarmendu behar da **Larrotxeneko ekoizpen eta koprodukzioek jaialdietan parte hartzen** jarraitu dutela, eta eskoletako film labur onenari emandako saria lortu dela Erandioko Jaialdian, edo hautatuak izan garela Chicago International Children's Film Festival-en.

Orobat, auzoko zenbait elkarterekiko lankidetzak aurrera egin du, eta horrek zenbait jarduerak harrera ona izatea ekarri du, hala nola ***Intxaurrondo Kantuz*** eta ***Emakumearen Astea***k.

Larrotxeneko **Liburutegia**k haur erabiltzaileen gorakada izan du, eta eskaintza aberastu du eskola eta ikastegientzako bisita gidatuak eskainiz..

Bestalde, ondo garatu eta burutu da **Bidebieta** auzoko jardueraren programazioa, **Haurtxokoa**ren eta **Gaztelekua**ren bitartez. Haur eta gazteei zuzenduriko programazioa izan da.









# Intxaurrondo Berri Kultur Etxea

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 10 | 1.435 |
| Zinema | 2 | 180 |
| Bideoa | 4 | 44 |
| Musika | 1 | 240 |
| Hitzaldiak | 3 | 166 |
| Ikastaro eta tailerrak | 15 | 410 |
| Erakusketak | 2 | 310 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 28 | 270 |
| Liburutegiko jarduerak | 33 | 400 |
| Hainbat[10] | 6 | 156 |
| **GUZTIRA** | **104** | **3.611** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 62.165 |
| **GUZTIRA** | | **62.165** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 9 | |





**Intxaurrondoko ekipamendu berriaren lanen hasiera** bistaratzeak itxaropen handiak sortu ditu. Hala eta guztiz ere ez gara geratu hobekuntzaren bat egin gabe, zerbitzua hobetzeko asmoz.

**Liburua**ren mundua eta **irakurketara animatzea** izan dira jardueren ardatz nagusia. Aurten programa berriak hasi dira adin tarte desberdinentzat: literatur solasaldiak, helduentzat, edo bisita gidatu animatuak, ikastegientzat.

Kultur Etxean egin diren **ikastaro eta tailerrek** okupazio maila handiari eusten diote aste osoan zehar.

Hainbat **elkartek** Kultur Etxean aurkitzen dute beren premien erantzuna eta topalekua, hasi Centro Extremeñotik eta auzo elkarteetaraino. Gizatalde horietako askorekin kultur jarduretan parte hartu du Kultur Etxeak.

Bestalde, **haur antzerkia**ren hileroko hitzorduaren arrakastak agerian jarri du asteburuetan txikienentzako programazio jarraituarekin segitzeko gogoa.



10 Literatur solasaldiak

# Loiola Kultur Etxea

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 17 | 1.239 |
| Dantza | 4 | 2.028 |
| Zinema | 3 | 355 |
| Musika | 13 | 1.184 |
| Hitzaldiak | 18 | 587 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 65 | 785 |
| Erakusketak | 14 | 12.084 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 50 | 1.203 |
| Aretoen alokairuak | 1 | 25 |
| Liburutegiko jarduerak | 43 | 584 |
| Hainbat[11] | 25 | 7.990 |
| **GUZTIRA** | **253** | **28.064** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 36.478 |
| Edonostia.net | | 5.413 |
| **GUZTIRA** | | **41.891** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 25 | |





Kultur etxeekin batera garatutako ohiko programazioaz gainera, aipatzekoak dira **Emakumeari eta Mikologiari eskainitako asteak**, bai eta ***Corrado Masacciren Azalpen didaktikoa*** ere.

**Liburuaren liburutegiko munduarekin eta zerikusia duten jarduerei** dagokienez, nabarmena da ***Poesia tailerrak***, literatura eta umoreari buruzko solasaldiek, Loiolako auzoko tokiko bildumak eta beste jarduera batzuek izan duten bultzada. Jarduera horien eta beste batzuen osagarri, proposaturiko gaiekin zerikusia zuten irakurketa gidak egin dira.



**Edonostia** zerbitzuak ahaleginean jarraitzen du arrakala digitalak gizartean duen inpaktua gutxitzeko, eta aurten ere oso harrera ona izan du.

**Martxoan Etxarriene Zentroa inauguratu izanak**, Gazteria eta Giza Eskubideen atalak kudeatuta, Martutenen kultur lan aberatsago eta askotarikoagoa egiteko bidea eman du, eta hango Gaztelekuan egiten ziren jarduerei proposamen berriak erantsi zaizkie ikastaro, antzerki, hitzaldi, irakurketara bultzatzeko programa eta abarrez. Martutenetik irten gabe, **Amundarain Liburutegia**rekin hasitako lankidetzari esker, liburutegi hori gero eta herritar gehiagori ari zaio zabaltzen.



11 San Isidro, Emakumearen Astea, X. Mikologia Jardunaldiak, Corrado Masacciren aurkezpena, Etxarriene Zentroaren inaugurazioa, Atari Eder jaiotza, eta Loiola Topa.

# Lugaritz Kultur Etxea

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 78 | 9.491 |
| Zinema | 84 | 9.292 |
| Bideoa | 6 | 82 |
| Musika | 15 | 2.621 |
| Hitzaldiak | 8 | 127 |
| Ikastaro eta tailerrak | 35 | 576 |
| Erakusketak | 11 | 3.770 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 132 | 2.427 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak (Merkatu zaharrean) | 1.221 | 34.400 |
| Merkatu Eguna | 20 | 6.480 |
| Aretoen alokairua | 6 | 600 |
| Liburutegiko jarduerak | 34 | 811 |
| Hainbat[12] | 1 | 240 |
| **GUZTIRA** | **1.651** | **70.917** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 46.337 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 39 | 2.570 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 36 | 1.750 |
| Plus 55 (jarduerak) | 55 | 1.660 |
| KZgunea | | 6.755 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 104 | 580 |
| **GUZTIRA** | | **59.652** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 27 | |

**Umore zorrotza** eta **edukizko lanak** dira Donostiako kultur mapan bere lekua duen arte eszenikoen programazioaren berezitasunak. 2008. urtea urte emankorra izan da, eta artista ospetsuak izan ditugu gure artean, hala nola **Nancho Novo** edo **Pepe Viyuela**, edota konpainia berritzaileak, hala nola **Bramant Teatre**.

Orobat, Imanol Larzabal Aretoak ezinbesteko geltoki izaten jarraitzen du Donostiako **antzerki amateurreko** konpainia askorentzat.

**Haur antzerkia**ren programazioa proposamen eszeniko interesgarrientzako erakusleihoa izan da. Esate baterako, ***Un piojo llamado Matías*** obra, maila handikoa, edo konpainia ospetsuek, hala nola **Yllana**k, ekarritakoa. Nabarmentzen hasita, **Gar Produkzioak** konpainiaren azken lana aipatuko genuke, ***Hire zain***. Haurrentzat eskainitakoan, hamabostero izaten diren zine emanaldiek ikusle asko erakartzen dituzte.

**Imanol Larzabal** artista hil zela hiru urte bete eta gero, **musika eta poesia emanaldi bat**ek, artistari buruzko erakusketa osagarri zuela, haren lagun asko bildu zituen, oroimenezko ekitaldi hunkigarrian.

**Gari, Mikel Urdangarin** o **Txuma Murugarren**ek denboraldiko musika emanaldi nabarmenenetako batzuk eskaini dituzte. Horien osagarri, alderdi klasikoagoan, **Musika Sakratu**ko kontzertuak eta **Abesbatzen Ziklo**ko kontzertuak izan dira Ibaetako Santu Guztien elizan.

Bi urtez behin egin ohi denez, Antiguako Merkatua eta bertan jardueraren bat duten dozena bat elkarte kalera irten dira **Merkatu Eguna**ren beste edizio batean.









12 Txirain Ipuin Lehiaketako sarien banaketa.

# Okendo Kultur Etxea

| JARDUERAK | Kop. | Erabiltz. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 23 | 2.107 |
| Zinema | 9 | 677 |
| Bideoa | 19 | 763 |
| Musika | 15 | 2.009 |
| Hitzaldiak | 47 | 3.295 |
| Ikastaro eta tailerrak | 21 | 433 |
| Erakusketak | 18 | 24.352 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 98 | 1.353 |
| Alokairuak | 7 | 576 |
| Liburutegiko jarduerak | 93 | 2.273 |
| **GUZTIRA** | **364** | **37.838** |

| ZERBITZUAK | | erabilerak |
|---|---|---|
| Liburutegiko bisitariak | | 165.906 |
| Haurtxokoa (jarduerak) | 106 | 8.821 |
| Gaztelekua (jarduerak) | 74 | 8.981 |
| Plus 55 (jarduerak) | 70 | 2.653 |
| KZgunea | | 25.879 |
| KZgunea (IT Txartela probak) | 221 | 2.171 |
| **GUZTIRA** | | **214.411** |
| Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua | 50 | |




Urtean zehar eskaini diren **erakusketak** maila handikoak eta askotarikoak izan dira: **Keixeta** paperean, **Miquel Barceló**ren arte grafikoa, **Regina Pessoa**ren animazio filmeko marrazki jatorrizkoak, literaturgileen erakustaldia, **Gervasio Sánchez**en argazki zirraragarriak, **Vinitas**en esperimentua, **Miguel Angel Martin**en komikia eta **Arte Digital** berria. Gainera, erakusketen areto zaharrean, talde erakusketak eta hiriko pertsonaienak programatzen jarraitu dugu, bai eta lehiaketak ere. Guztiek erakusketen panorama aberats eta askotarikoa osatzen dute.




**Arte plastikoekin** zerikusia duelako, aipatzekoa da **ikastaroek izan duten harrera ona**, bai eduki praktikoei buruzkoek (akuarela, olio-pintura...), bai arte teoriari buruzkoek (Arte garaikidea, Museoetara bisitak, Gotikoa, Nola irakurri artelan bat...).

Okendoko programazioko literatur ildoaren garapenari esker, gaur egungo idazketaren ahots interesgarriak hartu eta aurkeztu ahal izan ditugu, hala nola **Gioconda Belli, Espido Freire, John Boyne** edo **Juan José Millás** (DK Literatura).



Beste jarduera eta zerbitzuei dagokienez, garapen nabarmena izan baitute, aipatzea merezi du nola integratu diren **Haurtxokoa, Gaztelekua, Plus 55 eta Liburutegia** Kultur Etxeko programetan, aberastuz eta hartzaile desberdinen arteko nahasketarako bide emanez, bestela nekez gertatzen baita halakorik.

# Liburutegiak
## (Liburutegi zerbitzua)

| | |
|---|---|
| **Liburutegi kopurua** | 16 |
| | |
| Bilduma modernoko fondoak[1] | 296.279 |
| Liburu eta liburuxkak | 240.989 |
| Soinu dokumentuak | 25.841 |
| Dokumentu elektronikoak | 3.678 |
| Ikus-entzunezko dokumentuak | 21.785 |
| Musika inprimatua | 3.797 |
| Grabatuak | 172 |
| Mapak | 17 |
| Euskarazko fondoa | 57.836 |
| Gaztelaniazko fondoa | 207.696 |
| Beste hizkuntzetako fondoa | 30.747 |
| Altak | 34.688 |
| Bajak | 11.764 |
| -Bildumaren hazkundea %-tan | 8,39% |
| -Bildumaren berrikuntza %-tan | 11,71% |
| Bilduma historikoko fondoak | 65.000 |
| Bilduma historiko katalogatua | 51.409 |
| Mikrofilmak-mikrofitxak | 8.109 |
| | |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 265 |
| Internet/CD rom sarbide postuak | 236 |
| Opac | 29 |
| | |
| Opac kontsultak | 524.303 |
| WEB kontsultak | 140.797 |
| Hemeroteka digitaleko kontsultak | 18.987 |
| Liburutegi Zerbitzuko bazkideak | 89.445 |
| Bazkide aktiboak[2] | 33.369 |
| 2008. urteko bazkide berriak | 6.347 |
| Haur bazkide berriak | 1.442 |
| | |
| Liburutegira egindako bisitaldiak | 1.019.964 |
| -Eguneko bisiten batez bestekoa | 3.411 |
| | |
| Maileguak | 510.655 |
| Liburuen maileguak | 314.401 |
| Soinu dokumentuen maileguak | 51.545 |
| Dokumentu elektronikoen maileguak | 12.198 |
| Ikus-entzunezko dokumentuen maileguak | 120.289 |
| Musika inprimatuaren maileguak | 3.253 |
| Mapen maileguak | 1 |
| Aldizkarien maileguak | 8.968 |
| | |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 1.708 |
| | |
| Internet/CD rom/wi-fi kontsultak | 138.808 |
| KZ aretoetan | 95.640 |
| Aretoetan | 36.273 |
| e-Donostia aretoetan | 6.895 |
| | |
| Jarduera kopurua | 819 |
| Jardueretara etorritakoak | 16.333 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak | 926 |
| Erakusketak | 14 |

[1] Fondootan ez dira kontuan hartu gordailatutako fondo historikoak.
[2] Mailegua gutxienez behin erabili dutenak.

Aurten **hazkundea** nabarmenduko dugu, **alderdi guztien errendimenduari dagokion hazkundea**, eta iazkoarekin konparatuta:
• 1.019. 954 **bisita** gure liburutegietara (+ % 7, 99).
• 510.655 **mailegu** (+ % 5,78). Hau da, 2, 78 mailegu biztanleko. Europako batez bestekora hurbiltzen gara horrela, biztanleko 3-4 mailegu baita.
• **Erosketetan**, 11,71ko eraberritze kuota dugu (PABen[3] gomendatutakoa baino handiagoa: % 10). Gure bildumaren gaurkotasuna erakusten du horrek.
• **Internet eta zerbitzu elektronikoak**: 15 ordenagailu berri. Alegia, 1,44 ordenagailu eskaintzen ditugu 1.000 biztanleko (IFLA[4] batez bestekoaren gainetik).
• Azkenik, "**zenbat ale biztanleko**" **adierazleak** bi hamarren egiten du gora: 1,6 ale eskaintzen ditugu biztanleko.

Aurten **jarraipena eman zaie** lehendik hasitako **egitasmoei**:
• Aldikako beste argitalpen bat digitalizatu da, ***El Día***, eta **hemeroteka digital**eko web-ean da dagoeneko. Web hori XIX. mendeko prentsa historiko donostiarra digitalizatzeko proiektu globala da. 21.445 orrialde digitalizatuta. Guztira, 148.778 orrialde.

• Amaitu da **Asun Balzola fondoa** katalogatzeko lana, 1.067 erregistro guztira; horietatik, 171 obra grafikoa dira.

• **Gaiak euskaraz alfabeta ordenaren arabera** bilatzeko aukera erantsi zaio gure katalogoari. Hemendik aurrera, informazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan berreskuratu ahal izango da.

• **Orri-markatzaile berria** argitaratu da sarearen informazioarekin. Jose Mari Alemán Amundarain ilustratzaileak egin du. 1996an hasitako bildumaren 12.a da.

• ***Kulturak: haur eta gazte liburuak euskaraz*** gida argitaratu dugu 167 titulu hautatu dira, jatorriz euskaraz idatzitako lanak eta euskarara itzulitakoak. Liburu bakoitza euskaraz eta gaztelaniazko sinopsi batekin eta liburuaren azalarekin aurkezten da.

• Literatura jardueren barruan, Liburutegiaren Egunean **Alberto Manguel** idazlea etorri izana nabarmentzen dugu. *La biblioteca de noche* bere liburuaz hitz egitera etorri zen. Orobat, **Literaktum**. **DK Literatura** emanaldien zabalpena; besteak beste, John Boyne izan da bertan, *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* best-sellerraren egilea.

• Haur Liburutegi Nagusian, Madrileko **Goethe Institut**ekiko lankidetzari esker erakusketa egin zaio **Quint Buccholz** ilustratzaileari eta haren lan *El coleccionista de momentos*i buruz.

Orobat, nabarmentzekoa da gure **Sarea** liburutegi-foruetan **agertzen dela**. Esan nahi baita:
• Bi komunikazio Donostian, uztailaren 3tik 5era bitartean, haur literaturari buruz egindako **OEPLIren IV. Batzarrean**.
• A Coruñan, irailaren 24tik 26ra bitartean egindako **IV Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas**en aurkezturiko komunikazio bat.
• Irakasle lana **Los servicios de la biblioteca pública para usuarios del siglo XXI** ikastaroan. Madrilen, urriaren 9an egin zen, Kultura Ministerioak Hego Amerikako liburuzainentzat antolatuta.

[3] Liburutegiak analizatzeko programa. Bertelsmann Fundazioa.
[4] IFLA. Liburuzain eta Liburutegi Elkarteen Nazioarteko Federazioa.

# Liburutegiak
## (Liburutegi zerbitzua)

**Liburutegi Nagusia-Alderdi Eder**

| | |
|---|---|
| Fondo historikoa[5] | 65.000 |
| Fondoak | 45.455 |
| Altak | 5.593 |
| Bajak[6] | 1.510 |
| Bazkide berriak | 1.703 |
| Bisitariak | 307.804 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 1.029 |
| Maileguak | 116.304 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 389 |
| Internet-CD rom kontsultak | 6.723 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 30 |
| Prentsa historikoan egindako kontsultak | 4.544 |
| Ikus-entzunezkoetan egindako kontsultak | 2.472 |
| Jarduera kopurua | 156 |
| Parte-hartzaileak | 3.011 |
| Liburuxkak, gidak | 151 |
| Erakusketak[7] | 10 |

**Liburutegi Nagusia-Haur Sekzioa. Haur Liburuen Dokumentaziogunea**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 30.217 |
| Altak | 3.867 |
| Bajak | 476 |
| Bazkide berriak | 398 |
| Bisitariak | 43.433 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 153 |
| Maileguak | 30.085 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 106 |
| Internet-CD rom kontsultak | 331 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 10 |
| Jarduera kopurua | 103 |
| Parte-hartzaileak | 1.558 |
| Liburuxkak, gidak | 52 |
| Erakusketak | 1 |

**Altza Kultur Etxeko Liburutegia (Larratxo)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 11.496 |
| Altak | 1.436 |
| Bajak | 602 |
| Bazkide berriak | 112 |
| Bisitariak | 19.467 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 85 |
| Maileguak | 13.605 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 59 |
| Internet-CD rom kontsultak | 2.971 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 4 |
| Jarduera kopurua | 25 |
| Parte-hartzaileak | 368 |
| Liburuxkak, gidak | 44 |










5 Gutxi gorabeherako kopurua. Katalogatzen ari diren fondoa. 2008.aren amaieran katalogaturiko fondoa: 51.409
6 Behin betiko bajak eta fondoen gordailuratzea barne.
7 Alderdi Ederreko Liburutegiko erakusketak. San Jeronimo kaleko Ekitaldi Aretoa.

# Liburutegiak
## (Liburutegi zerbitzua)

**Casares – Tomasene Kultur Etxeko Liburutegia (Altza)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 23.512 |
| Altak | 2.810 |
| Bajak | 789 |
| Bazkide berriak | 405 |
| Bisitariak | 52.700 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 176 |
| Maileguak | 40.935 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 137 |
| Internet-CD rom kontsultak | 18.116 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 30 |
| Jarduera kopurua | 38 |
| Parte-hartzaileak | 534 |
| Liburuxkak, gidak | 97 |



**Egia Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 26.611 |
| Altak | 2.205 |
| Bajak | 682 |
| Bazkide berriak | 335 |
| Bisitariak | 49.204 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 214 |
| Maileguak | 34.615 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 151 |
| Internet-CD rom kontsultak | 11.213 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 28 |
| Jarduera kopurua | 57 |
| Parte-hartzaileak | 1.370 |
| Liburuxkak, gidak | 43 |
| Erakusketak | 1 |




**Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Amara)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 28.576 |
| Altak | 3.508 |
| Bajak | 1.182 |
| Bazkide berriak | 977 |
| Bisitariak | 158.958 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 532 |
| Maileguak | 78.330 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 262 |
| Internet-CD rom kontsultak | 24.843 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 41 |
| Jarduera kopurua | 109 |
| Parte-hartzaileak | 1.793 |
| Liburuxkak, gidak | 139 |
| Erakusketak | 1 |



**Intxaurrondo Berri Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 21.410 |
| Altak | 2.439 |
| Bajak | 1.123 |
| Bazkide berriak | 281 |
| Bisitariak | 62.165 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 270 |
| Maileguak | 38.539 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 168 |
| Internet-CD rom kontsultak | 4.904 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 8 |
| Jarduera kopurua | 33 |
| Parte-hartzaileak | 400 |
| Liburuxkak, gidak | 54 |



# Liburutegiak
## (Liburutegi zerbitzua)

**Larrotxene Kultur Etxeko Liburutegia (Intxaurrondo)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 11.807 |
| Altak | 1.366 |
| Bajak | 84 |
| Bazkide berriak | 153 |
| Bisitariak | 20.284 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 88 |
| Maileguak | 14.257 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 62 |
| Internet-CD rom kontsultak | 3.985 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 21 |
| Jarduera kopurua | 65 |
| Parte-hartzaileak | 2.104 |
| Liburuxkak, gidak | 30 |



**Loiola Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 23.180 |
| Altak | 2.443 |
| Bajak | 264 |
| Bazkide berriak | 186 |
| Bisitariak | 36.478 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 159 |
| Maileguak | 18.021 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 78 |
| Internet-CD rom kontsultak | 5.413 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 12 |
| Jarduera kopurua | 43 |
| Parte-hartzaileak | 584 |
| Liburuxkak, gidak | 50 |
| Erakusketak | 1 |



**Lugaritz Kultur Etxeko Liburutegia (Antigua)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 23.030 |
| Altak | 2.375 |
| Bajak | 2.941 |
| Bazkide berriak | 584 |
| Bisitariak | 46.337 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 201 |
| Maileguak | 32.402 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 142 |
| Internet-CD rom kontsultak | 8.410 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 26 |
| Jarduera kopurua | 34 |
| Parte-hartzaileak | 811 |
| Liburuxkak, gidak | 136 |



**Okendo Kultur Etxea (Gros)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 28.350 |
| Altak | 3.405 |
| Bajak | 2.087 |
| Bazkide berriak | 964 |
| Bisitariak | 165.906 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 555 |
| Maileguak | 81.688 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 273 |
| Internet-CD rom kontsultak | 29.869 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 37 |
| Jarduera kopurua | 93 |
| Parte-hartzaileak | 2.237 |
| Liburuxkak, gidak | 62 |



# Liburutegiak
## (Liburutegi zerbitzua)

**Urgull Mendiko Udako Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 4.136 |
| Altak | 267 |
| Bajak | 8 |
| Bazkide berriak | 44 |
| Bisitariak | 3.567 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 42 |
| Maileguak | 373 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 4 |
| Internet-CD rom kontsultak | 258 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 4 |
| Jarduera kopurua | 56 |
| Parte-hartzaileak | 1.509 |
| Liburuxkak, gidak | 1 |



**Udal Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 8.824 |
| Altak | 1.341 |
| Bajak | 14 |
| Bazkide berriak | 159 |
| Bisitariak | 43.448 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 195 |
| Maileguak | 8.785 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 41 |
| Internet-CD rom kontsultak | 1.575 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 7 |
| Jarduera kopurua | 5 |
| Liburuxkak, gidak | 67 |



**San Telmo Museoko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 7.689 |
| Altak | 1.216 |
| Bajak | 2 |

**Cristina Enea Ingurumen Baliabideen Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 1986 |
| Altak | 417 |
| Bajak | 0 |
| Bazkide berriak | 29 |
| Bisitariak | 2.818 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 11 |
| Maileguak | 355 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 1 |
| Internet /CD rom kontsultak | 1.097 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 2 |
| Jarduera kopurua | 2 |



**Amundarain Mediateka. Arantzazuko Ama Ikastola**[8]

| | |
|---|---|
| Bidalitako loteak | 1 |
| Fondoak | 6.682 |
| Altak | 1.804 |
| Bajak | 748 |
| Bisitariak | 7.395 |
| Eguneko bisiten batez bestekoa | 32 |
| Maileguak | 1.832 |
| Eguneko maileguen batez bestekoa | 8 |
| Erabilera publikoko ordenagailuak | 5 |

8 Auzo osorako irekitzeari buruzko datuak besterik ez.

# Musika

| IKUSKIZUNAK | emanaldiak | ikusleak |
|---|---|---|
| Victoria Eugenia | 54 | 18.908 |
| Gazteszena | 8 | 1.382 |
| Jazzaldia | 79 | 150.000 |
| Gospel | 5 | 5.522 |
| Kursaal Fundazioa | 11 | 13.021 |
| **GUZTIRA** | **157** | **188.833** |



Berriki, bertako komunikabide batek 2008an Gipuzkoan sona handiena izan duten 21 kontzertuen zerrenda eman zuen. Haietarik, 12 kontzertu unitate honek antolatuak ziren. Nabarmendutakoen artean, zenbait Victoria Eugenia Antzokian bertan eginak ziren: **Luz Casal, Mikel Erentxun** edo Heineken Jazzaldiko programazioaren barruko batzuk. Beste zenbait kontzertu, berriz, Kursaal Fundazioaren eskaintzaren barruan unitate honek programatutako zenbait ziren: **Ken Zazpi, Amaral, Bebo eta Chucho Valdés** eta **Diego el Cigala**. Kursaalean izan ziren, halaber, **Eguberrietako X. Gospel Kontzertuak** ere. Baina neurriz gaineko kontzertu gisa, urte osoan zehar Jose Antonio Gasca kiroldegian egindako bakarra eta, ezbairik gabe, nabarmendu beharrekoa, **Nick Cave & The Bad Seeds**ena izan zen, gaur egungo poparen zaleen artean jakin-min handiena sortutakoa.



Horrez gainera, formatu txikiagoan, baina unitate honek zale donostiarren eskura jartzen duen eskaintza osatuz, aipatzekoak lirateke Lugaritz eta Egia kultur etxeetan programaturiko kontzertuak: **Al Kooper, Asa, Peter Hammill...**







# Antzerkia eta Dantza

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| **ANTZERKIA** | | | |
| dFERIA | 36 | 85 | 38.142 |
| **GUZTIRA** | **36** | **85** | **38.142** |
| | | | |
| **Neguko antzerkia** | | | |
| Antzerki profesionala | 35 | 71 | 26.267 |
| Antzerki amateurra | 47 | 47 | 4.111 |
| Haur antzerkia | 62 | 67 | 8.374 |
| Kale antzerkia | 40 | 40 | 11.606 |
| Beldurrezko kale antzerkia | 2 | 3 | 7.500 |
| Poltsiko antzerkia | 24 | 27 | 1.771 |
| Antzerkiko eskola-paseak | 9 | 24 | 2.312 |
| Hainbat | 6 | 8 | 548 |
| **GUZTIRA** | **225** | **287** | **62.489** |
| | | | |
| **Udako antzerkia** | | | |
| Antzerki profesionala | 10 | 80 | 27.410 |
| **GUZTIRA** | **10** | **80** | **27.410** |
| | | | |
| **LIRIKA** | **7** | **11** | **3.340** |
| **DANTZA** | **39** | **50** | **18.679** |
| **MUSIKALAK** | **1** | **8** | **5.879** |
| | | | |
| **GUZTIRA** | **318** | **521** | **155.939** |

2008. urtea **eszena sendotzearen** urtea izan da Donostian. **Victoria Eugenia Antzokia** bere jardunbide normalean sartu da, eta, nahiz eta oraindik hainbat zeregin eta egitasmo dauden eginkizun, esan daiteke jarduera eszenikoa ondo ezarrita geratu dela Donostian. Donostiako beste ekipamenduek egoera eszeniko berrira egokitu dute jarduna, eta ikus-entzuleen kopuruei eusteko asmoz daude. Ikus-entzuleek arte une handi eta asko gozatu ahal izan ditu 2008an. Ohikoa denez, konbinazio erabatekoa eta **oreka** zaila eskaini nahi izan da **antzerki proposamen konbentzionalen** eta proposamen **garaikideagoen** artean, haurrentzako antzerkiaren eta gazte eta helduentzako antzerkiaren artean; euskal jatorri-markako antzerkiaren eta kanpokoaren artean. **Euskara**k programazioan bere lekua izan zezan saiatu gara, eta horretarako Euskararen Udal Patronatuaren lankidetza izan dugu, modu ezin hobean, eta, bestalde, dantza garaikideak gure agertokietan bere lekua izan zezan saiatu gara.

Baina batez ere pozik egon gaitezke antzerki eta dantzako muntaketa handiak formatu txikiagoko proposamenekin batera izan direlako, bigarrenak ere oso garrantzitsuak baitira edukiei dagokienez gizarte aldetik eta alderdi humanitario eta poetikotik. Espainiako eta nazioarteko izen handiak. Latinoamerikara eta Europara begiratu dugu, 2016an **Europako Kultura Hiriburu** izateko abian jarriz geroztik. Hemen izan dira **Eifman Ballet** (Errusia) eta **Leipzig Ballet** (Alemania) dantzan, eta **Peter Brook-en Konpainia** (Frantzia) eta **Chekhov International Theatre Festival** (Errusia) antzerkian. Berriro muntatu zen Victoria Eugenia Antzokian **Lindsay Kemp**en *Elisabeth I, el último baile*. Denak ere, nazioartearen onespena duen europar sorkuntzaren ordezkari behinenak dira.

Espainiar ordezkariei dagokienez, hor izan ditugu **Faemino y Cansado, Florentino Fernández** eta **Josema Yuste**, **Federico Luppi, María Barranco, Mirian Díaz Aroca, José Coronado, Marisa Paredes, Lola Herrera** eta beste hainbat ospetsu, zerrendatzen hasita amaitu ezinik geratu ginateke baina. Dramaturgia eta literatura unibertsaleko titulu handiak, hala nola L'OM-Imprebisen *Don Juan*, Alfonso Sastreren *¿Dónde estàs Ulalume, dónde estás?*, Shakespeareren *El Rey Lear, Hamlet* edo *Noche de Reyes*.

Euskal eszenako onena ere ikusgai izan dugu; protagonista izan dira hirian. **Tanttaka**k Javier de Dios-en *Comida para peces* estreinatu zuen, Euskadi Literatura Saria irabazitako obra. **Ados**ek, berriz, bere proposamen berria: *Si ves a Lola, dile que es rica*. Euskarazko antzerki ikusle helduei zuzendurikoak borrokan jarraitzen du programazioan dagokion tokia beretzeko: hor izan ditugu **Txalo Produkzioak**en *Gronholm metodoa* edo *Sommer Jaunaren istorioak*, Jose Ramon Soroizekin.

**Lirikan** bi titulu pisuzko izan ditugu: *La Revoltosa* eta *Las bribonas* (bigarrena, ez hain ezaguna, baina interesgarriagoa). Biak ere **Teatro de la Zarzuela**ren eskutik. *High School Musice*k, Donostian egindako estreinaldi ofizialarekin, oso goian utzi zuen **musikalen arloa**.

**Dantza** programazioa ere oso garrantzitsua izan da. Leipzig Ballet, Eifman Ballet, **Antonio Márquez, Blanca Li, Ballet Biarritz**, besteak beste. Hasi klasikotik eta garaikiderainoko proposamenak, neoklasikoa eta flamenkoa tartean direla. nabarmentzekoa da Ballet Biarritzekiko lankidetza berezia; izan ere, bide horretatik Victoria Eugenia Antzokiak parte hartu du *El amor brujo*ren koprodukzioan.

Antzerki eta Dantza Unitateko gakoak, bere hartan jarraitu ez ezik, **indartu** egin dira ikus-entzuleen erantzunari esker, bikaina izan baita. Nabarmentzekoak, halaber, haurrei zuzenduriko lau programazio egonkorrak, Antzoki Zaharrean eta Imanol Lartzabal, Gazteszena eta Altzako aretoetan. **Egia** Kultur Etxeko **Gazteszena** aretoak ikuskizun bikainak eman ditu dantza eta antzerki garaikideko programazioetan; ez du parerik, Euskadin behinik behin. **Lugaritz** Kultur Etxeko **Imanol Larzabal** aretoak formatu txikiari eta haurrentzako antzerkiari begira jardun du, eta oso ikusle-kopuru ederrak lortu ditu bi alorretan. Antiguako aretoa hirirako sarbide eszenikoetako bat da, artista gazteei eta konpainia hasi berriei irekitako atea, pixkanaka beren ikusleak sortzeko eta, hartara. Donostiako agertoki handiagoetara iristeko bidea ematen baitie.



# Zinea eta Bideoa

**ZINE PROGRAMAZIOAREN LABURPEN OROKORRA**
**AZ, VEA eta KURSAAL**

| | Egunak | Filmak | Saioak | Ikusleak |
|---|---|---|---|---|
| Nosferatu programazioa | 31 | 31 | 31 | 4.369 |
| Fantasia eta Beldurrezko Astea | 10 | 77 | 43 | 16.495 |
| Giza Eskubideen Zinemaldia | 8 | 32 | 23 | 6.590 |
| Surfilm festibal | 4 | 32 | 10 | 3.046 |
| Ziklo eta saio bereziak | 171 | 178 | 208 | 20.630 |
| **GUZTIRA** | **224** | **350** | **315** | **51.130** |



**ZINE ETA BIDEOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK**






Donostia Kulturaren zine programazioa urtero egiten diren **zinemaldietan** zentratzen da gero eta gehiago: **Giza Eskubideen Zinemaldia**, **Surfilm festibal eta Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**. Zinemaldion edizioek oso emaitza onak izan dituzte aurten ere.

Aurtengoan, nabarmendu behar da **proiekzio formatu digitalak** gero eta indartsuago ari direla sartzen. Ondorioz, ekoizteko, banatzeko eta emateko moduak aldatzen ari dira. Beraz, **gogoeta aldia** ireki beharra dago arazo honi buruz: norantz joan behar du Donostia Kulturaren ikus-entzunezko programazioak. Eztabaida horretan sartuta dago erabat film emaileen sektorea, hala publikoa nola pribatua.



Orobat, 2008an erabat **berregituratu** da **Larrotxene Kultur Etxeko prestakuntza** eta **ekoizpen saila**. Etapa berri bat ireki da horrela, irakasle berriekin eta helburu berriekin, egitasmo pedagogikoa ikus-entzunezkoen mundu profesionalera hurbiltzeko asmoz.

**Victoria Eugenia** Antzokia gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen ikus-entzunezkoen emanaldien programazioan.

# Zine-Argitalpenak

2008. urtean **Nosferatu aldizkaria** liburu bilduma bihurtu da, zertarako eta ekonomia errentagarritasun eta banaketa hobeak izan ditzan. Hiru zenbaki argitaratu dira bilduma berri horretan: **Raoul Walsh, Edward Yang** eta **David Lean**, eta informazio euskarri gisa balio izan dute Nosferatu programazioak hiru zuzendari horiei eskainitako zikloetan.

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearekin batera, ***Cine de animación japonés*** liburua argitaratu da, Antonio José Navarrok koordinaturik. Eta, urtero bezala, **2000 Maníacos** fanzinearen zenbaki berri bat.






# Festak

2008. urtean, Donostia Kulturako **Festen Unitatea hazi egin da** herritarren parte-hartzea bultzatuz, hainbat jai-ekimeni lagunduz eta jarduera berriak sortu eta gure hiriaren urteko jai-programan finkatzeraino iritsiz.

Esandako horren adibide gisa, 2008an gauzatu diren jarduera esanguratsuenetako bi aipa daitezke: **Bandera jasotzea**, non urtetik urtera gero eta jende gehiagok parte hartzen baitu, eta **Emakumeen Kontxako I. Bandera**.

Jarduera askotan nabarmendu genezake herritarren parte-hartzearen gorakada. Hori dela eta, 2008ko memoriaren atal bakoitzean datu hau jaso dugu, unitate honen helburuak betetzeko duen garrantziagatik.

Aurtengoa, halaber, gure hiria **2016an Europako Kultura Hiriburu izateko Hautagaitza** abiatu den urtea izan da: festen unitatetik, **ekintza asko** egin ditugu erronka horretan laguntzeko.

Hona hemen 2008. urtean antolatu ditugun jarduerak:

**ERREGEAK** (urtarrilaren 5ean, larunbatarekin)
Sortaldeko Erregeen etorrera, eta Donostiako haurrei egindako harrera. Eguraldi txarra izanik, **trenez etorri ziren gure hirira** (Eusko Trenbideak, Easo plazan). Udaletxean harrera egin eta gero, zaldi gainean ibili ziren hiriaren erdialdeko kaleetan zehar (18:00). Hainbat gizarte zentro bisitatu zituzten (Matia Fundazioa, Quavitae).

| | |
|---|---|
| Kolektibo kopurua | 12 |
| Partaide kopurua | 500 |
| Karrozak | 4 |
| Fanfareak | 4 |

Gozokiak  2100 Kg (diabetiko eta zeliakoek jateko modukoak)

**HAURREN DANBORRADA** (urtarrilaren 20an, igandearekin)
Easo Ederra, Jenerala, Laguntzaileak, Damak eta Zamaltzainak, **San José Ikastetxekoak** izan ziren; Danbor Nagusia, berriz, **Belen Ikastetxekoa**. Desfile nagusia, eguerdiko 12:00etan, Alderdi Ederretik abiatuta (beste desfile batzuk ere bai, beste egun eta leku batzuetan). San Sebastian eguna igandean tokatu zenez, biharamunean, astelehenean alegia, jai egin zen. Pinak banatu zitzaizkien partaideei (oroigarri gisako dominaren ordez).

| | |
|---|---|
| Kolektibo kopurua | 49 |
| Partaide kopurua | 5.200 |
| Ikusleen zenbatespena | 40.000 |

**HELDUEN DANBORRADA – BANDERA JASOTZEA**
(urtarrilaren 19-20an, larunbat-igandeko gauean)
Bandera Jasotzeak markatu ohi du jai-ekintzen hasiera. Hiriko danborrada guztien ordezkariak, Gaztelubide Elkartekoak buru zirela, Konstituzio Plaza ezin beteagora etorri ziren. Nabarmentzekoa da **Orfeoi Donostiarra**ren parte-hartzea, Gaztelubide Elkartearen 75 urteak betetzen zirela eta. Asteburua izateak eta eguraldi onak ohi baino askoz jende gehiago biltzea ekarri zuten (batez ere hiriaz kanpotik etorritakoa).







| | |
|---|---|
| Kolektibo kopurua | 64 |
| Partaide kopurua | 355 |
| Ikusleen zenbatespena | 2.500 |



**KALDEREROAK** (urtarrilaren 26an, larunbatarekin)
**Inauterien etorreraren iragarpentzat** hartzen da jai hau, eta ijito tribuak Hungariatik Donostiara kobrezko tresnak konpontzera iritsi zirenekoa gogoratzen du. Otsailaren lehen larunbatean ospatu ohi da, baina aurten **aurreratu egin zen** Inauterien hurbilagatik. Fermin Kalbeton kaletik abiatu zen desfilea, 22:00etan. Kanpamendua, Konstituzio Plazan jarri zen.

| | |
|---|---|
| Tribu kopurua | 18 |
| Partaide kopurua | 348 (% 37 emakumeak) |

**INAUTERIAK** (urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra, ostegunetik astelehenera)
Egun horretan mozorroak, dantzak, musika eta umore ona izan ziren nagusi Donostiako kaleetan, eguraldi ona lagun. Momo jainkoa **Ana Mónica Rodríguez Peral** izan zen, **Fama konpartsakoa**. Nabarmendu beharrekoak dira Inauterietako **Konpartsa historikoak** (Oilarrak, Lanpernak, Kaldereroak, Lorezainak, Danborrada eta Inude eta Artzaiak). Parte-hartze handia izan zen desfile guztietan, eta fanfareak eta batukadak ere kalerik kale ibili ziren. Sardinaren ehorzketa astelehenean ospatu zen, arrakasta handiz.

| | | |
|---|---|---|
| Jarduera kopurua | 84 | |
| Partaideen konpartsak | 30 | |
| Partaide kopurua | 2.500 | |
| Fanfareak | 14 | |
| Ikusleen zenbatespena | 30.000 | lagun eguneko |




Garaileen zerrenda:
Inauterietako Sari Nagusia: Tantai Loiolako Konpartsa
Umorearen Sari Nagusia: Denok Taldea

Konpartsak:
Konpartsa handiak
1. Karmelo Txiki
2. Trumoiak
3. Gurea

Konpartsa ertainak
1. Aitor Ikastola
2. Mi Nuevo Potosi
3. Boveda

Konpartsa txikiak
1. Alaia
2. Lagun Artea
3. Zuhaitzak

Karrozak:
Konpartsa handiak
1. Thamessis
2. Trumoiak
3. Fama

Konpartsa ertainak
1. Santa Barbara
2. Alegria de Alza
3. Aitor Ikastola

Konpartsa txikiak
1. Alaia
2. Lagun Artea

Epai-mahaiak konpartsa handien maila handian nabarmendu zuen. Horrek zaildu egin zuen haien arteko garaileak erabakitzea.

# Festak

**SAN JOAN BEZPERA** (ekainak 23, astelehenarekin)
Lekua eta ordua: Konstituzio Plaza, 19:00.
Deskribapena: **Goizaldi Dantza Talde**koek San Joanen zortzikoa dantzatu zuten Konstituzio Plazan, hartarako ipinitako lizarraren inguruan. Dantzari eta txistulariek Gizon Dantza dantzatu eta jo zuten (agintariek dantza hori eskaini ohi zuten herrietako jaietan, plaza erdian). Azkenik, sua piztu zen, ohi bezala.



**ASTE NAGUSIA** (abuztuaren 9tik 16ra, larunbatetik larunbatera)
**Musikak, su festek, erraldoi eta buruhandiek eta beste jarduera askok** animatu zituzten Donostiako udako egun nagusiak, bertakoen eta bisitarien gozamenerako. Astea larunbatetik larunbatera izan zen. Asteko programak are aukera sorta zabalagoa eskaini zuen: zinea berreskuratu zen, fanfareen nazioarteko erakustaldia ere bai, kaleko antzerkiak presentzia handiagoa izan zuen, eta euskal kulturarekin zerikusia zuten jarduerak indartu ziren. Nabarmentzekoa, halaber, **painelu txuri-urdinen** banaketa.

| | |
|---|---|
| Agertokien kopurua | 9 |
| Jarduera kopurua | 212 |
| Musika emanaldiak | 86 |
| Haurrentzako jarduerak | 41 |
| Kirolak | 24 |
| Antzerkia eta zinea | 14 |
| Folklorea | 14 |
| Suzko zezenen entzierroak | 7 |
| Hainbat | 26 |



**DONOSTIA HIRIA XVII. POP-ROCK LEHIAKETA** (finala: abuztuaren 9an)
1992tik egiten da lehiaketa hau, **talentu berriak** aurkitzeko. Gipuzkoako taldeek parte har dezakete, diskorik argitaratu ez badute.
Garaileen zerrenda:
1. postua: TRAINSALPINE BOYS EN ICELAND (Donostia)
2. postua: GRISES SUEÑOS (Zestoa)
3. postua: PLASTIC (Lasarte-Oria)
Epaimahai gaztea: ROCK PRIVADO (Donostia)



**SU FESTEN NAZIOARTEKO JAIALDIA – 45. LEHIAKETA** (abuztuaren 9tik, larunbata, 15era, ostirala, eta 16a, larunbata)
Su Festen Jaialdi-Lehiaketa 45. aldiz egin da 1964.ean hasi zenez geroztik, eta **Aste Nagusiko ekitaldi erakargarrienetako bat** izatera iritsi da. Lehiaketa garrantzitsua da pirotekniaren munduan, eta **hainbat herrialdetako etxe espezializatuak** etorri ohi dira parte hartzera. Ez zen beste urte batzuetan adina jende etorri, eguraldi txarra zela eta. Lehiaketak aurreko edizioetan baino egun bat gutxiago izan zuen, eta ostiralean amaitu zen, 15ean. Hala ere, hurrengo gauean zaleek ikuskizun piromusikalaz gozatu ahal izan zuten Kontxako Badian. Santa Klara uhartearen eta Urgull Mendiaren arteko elkarrizketa zuen titulua, eta Astondoa Pirotekniak (Bizkaia) aurkeztu zuen.

# Festak

Parte hartu zuten piroteknien kopurua 7 (4 nazional eta 3 atzerritar)
Ikusleen zenbatespena 103.000 lagun gaueko
Garaileen zerrenda:
Urrezko Maskorra: Parente Fireworks (Italia)
Zilarrezko Maskorra: Pirotecnia Martí (Castello)
Brontzezko Maskorra: Zamorano Caballer (Valentzia)
Gazteriaren Saria: Pirotecnia Martí (Castello)
Herritarren Epaimahaiaren Saria: Pirotecnia Martí (Castello)
Sariak banatzeko ekitaldia larunbatean egin zen, abuztuaren 16an.




**EUSKAL JAIAK** (irailaren 6tik, larunbata, 14ra, igandea)
**Herri kirolak, gastronomia, musika eta dantza** izan ziren Euskal Jaien eskaintza. Aipamen berezia merezi dute estalpean egindako bi jarduerak: **Poesia Orduak** eta **Trikitixa Jardunaldiak**, ikus-entzuleen interes handia piztu baitzuten.

| | |
|---|---|
| Jarduera kopurua | 42 |
| Musika emanaldiak | 14 |
| Dantza | 5 |
| Kirola | 6 |
| Haurrentzako jarduerak | 5 |
| Gastronomia eta azokak | 5 |
| Hainbat | 7 |



**DONOSTIAKO ESTROPADAK:**

**GIZONEZKOEN KONTXAKO BANDERA** (irailaren 4an, osteguna, eta 7 eta 14an, igandea)
**Kantauriko arraun talderik onenak** hiru egunetan lehian, iraileko lehen igandeetan ohi bezala.
Klub parte-hartzaileen kop.23 (+ 1 sailkatua)
Sailkatutako klubak: 8
Irabazlea: **S.D.R. Castro-Urdiales**
Ikusleen zenbatespena 30.000 lagun eguneko



**EMAKUMEEN KONTXAKO I. BANDERA** (irailaren 13 eta 14an, larunbat eta igandean)
100 urtean baino gehiago lehiaketa hau gizonen kontua izan ondoren, aurten, **lehen aldiz**, Emakumeen Kontxako I. Bandera antolatu da.
Klub parte-hartzaileak:
Getariako Arraun Elkartea
Galicia
Hondarribia Arraun Elkartea
Sociedad Deportiva De Remo Astillero
Tolosaldeko Arraun Kluba - Oria 2005
Arkote Arraun Taldea
Club De Rem Colera P.P.G.
Club De Rem Badalona
Sailkatutako klubak:
Galicia
Sociedad Deportiva De Remo Astillero
Getaria – Zumaia
Hondarribia Arraun Elkartea

Emakumeen Kontxako I. Banderaren arraun talde irabazlea
**GALICIA**

# Festak

**SANTO TOMAS FERIA** (abenduaren 21ean, igandearekin)
Feriak, ohiko postuak izan zituen: txistorra, bertako eskulangintza, baserriko produktuak, bai eta lehiaketa eta erakustaldiak ere. Aipatzekoa, oilasko eta kapoien lehiaketa berriz egin izana.

| | |
|---|---|
| Jai barrutiak | 7 |
| Postu kopurua | 193 |
| Herritarren zenbatespena | 60.000 |

Garaileen zerrenda:
**Oilasko eta kapoien Lehiaketa berriro egin da** (Ignazio Markuletaren oroimenezkoa), hiru urteko etenaldiaren ondoren, hegaztien gaitza zela eta osasunaren aldeko neurriak hartu beharra zegoelako.
Baserriko kapoi eta oilaskoen lehiaketa
Euskal Oiloa – Ignazio Markuletaren Oroimenezkoa
1. saria: GOIKOETXEA, Jose Javier (Albiztur)
2. saria: ZURRIARAIN, Maria Luisa (Albiztur)
3. saria: ZURRIARAIN, Maria Luisa (Albiztur)
Fruta eta Barazkien Lehiaketa:
Jose Salaberriaren Oroimenezkoa MURGIONDO, Anttoni (Gabiria)
Frutak
1. saria: IRADI, Maddi (Hernani)
2. saria: MURGIONDO, Anttoni (Gabiria)
3. saria: ETXEZARRETA, Maria (Gabiria)
Barazkiak
1. saria: ZABALEGI, Jose Manuel (Donostia)
2. saria: MURGIONDO, Anttoni (Gabiria)
3. saria: ETXEZARRETA, Maria (Gabiria)
Donostialdeko IV. Ezti Lehiaketa
1. saria: ALZAGA, Jose Migel (Hernani)
2. saria: GALDEANO, Juanito (Hernani)
3. saria: FRANCO, Patxi (Andoain)
Euskal Herriko XIII. Txistorra Lehiaketa
1. saria: ALTUNA HARATEGIA (Urnieta)
2. saria: EMBUTIDOS ETXEKOAK (Oiartzun)
3. saria: CARNICERIA MENDINUETA (Uharte-Arakil)
Txorimalo Lehiaketa
1. saria: ASOCIACION CULTURAL THAMESSIS (Donostia)
2. saria: SANTA TERESA IKASTETXEA (Donostia)
3. saria: ZUHAITZAK KONPARTSA (Donostia)
Ondoen girotutako postuarentzako saria: Eman gabe

**OLENTZERO** (abenduaren 24an, asteazkenarekin)
Hemen dira Eguberriak, eta hor dator ikazkin zintzoa hirira, txikienen zorion eta pozbiderako. Haurrek Olentzeroren marrazkia egiten dute, eta bitartean Marsel magoaren Magia Potagia ikuskizunean parte hartzen dute.

| | |
|---|---|
| Kolektibo taldea | 10 |
| Partaide kopurua | 520 |
| Gaztaina banaketa | 100 kg |
| Ikatz banaketa | 50 kg |
| Txokolatezko olentzeroen banaketa | 1.000 |

**DONOSTIA KULTURA FESTAK UNITATEAK KUDEATUTAKO JARDUERAK**
• BAIMENEN KUDEAKETA ETA/EDO AZPIEGITURAK ESKURA JARTZEA

| | |
|---|---|
| AUZOETAKO JAIAK | |
| Jai kopurua | 29 |
| HAINBAT AUZOTAKO KALDEREROAK | |
| Konpartsa kopurua | 17 |
| INUDE ETA ARTZAIEN KONPARTSAK | |
| Konpartsa kopurua | 4 |
| HAINBAT AUZOTAKO OLENTZEROAK | |
| Kolektibo kopurua | 21 |
| ETXE ERREGIONALEN JAIAK | |
| Jai kopurua | 8 |
| HAINBAT KOLEKTIBO | 47 |





**SENIDETZEAK**

Donostia **6 hiririkin** dago senidetuta gaur egun: Wiesbaden (Alemania), Trento (Italia), Plymouth (Britainia Handia), Marugame (Japonia), Reno (AEB) eta Daira de Bojador (Saharar Errepublika).



**WIESBADEN**

-2007ko Momo Jainkoaren bidaia (Pedro González Loro), bere segizioarekin, Wiesbadengo 2008ko Inauterietara, otsailaren 1etik 5era, ostiraletik asteartera. Desfile eta mozorro dantzetan parte hartu zuten.
-Ikastetxe Alemaneko Antzerki Taldea: San Alberto Magno ikastetxe alemaneko antzerki tailerreko ikasle talde batek eskola antzerkiaren jardunaldietan parte hartu zuen Wiesbadenen (martxoaren 12tik 14ra). Shakespeareren Udako gau bateko ametsa eskaini zuten.
-BdBduoren emanaldian Wiesbadenen: Maria Jose Barandiaran eta Maria Jose de Bustos piano-jotzaile donostiarrek osatutako bikotea (ekainaren 13an)
-Praktikak: Wiesbadengo Udaleko langile bat etorri zen gonbidatuta, urriaren 6tik 17ra Donostian praktikak egiteko.
-Behobia-Donostia lasterketan parte hartzea: Wiesbadengo talde bat lasterketa horretan parte hartzera etorri zen (azaroaren 8tik, larunbata, 10era, astelehena).



**TRENTO**

-Donostiaren bat egitea otsailaren 15eko (ostirala) itzalaldiarekin. Trentok lankidetza eskatu zien senidetutako hiriei *M'illumino di meno*ren 4. ediziorako. Italian egiten den kanpaina da, energia aurrezteko premiaz kontzientziatzeko. Eraikin nabarmenen bat denboraldi jakin batean itzalita eduki behar zen (Donostiaren kasuan, Victoria Eugenia, 19:55etatik 20:00etara).
-Saskibaloia: Mini Easo 97 saskibaloi taldeak Trentoko Nazioarteko Lehiaketan parte hartu zuen Donostiaren ordezkari gisa, maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean.
-Palio dell'Oca (Feste Vigiliane): talde donostiar bat izan zen Donostiaren ordezkari Palio dell'Oca estropadan, Feste Vigiliane direlakoetan (San Vigilioren jaia) egin baitzen Trenton (ekainaren 21etik, larunbata, 23ra, astelehena).
-Praktikak: Trentoko Udalak gonbidatutako pertsona baten egonaldia, hizkuntza praktikak egiteko (irailaren 15etik, astelehena, 27ra, larunbata).



**MARUGAME**

-Kirol Lehiaketetarako plaken trukea. Urtero bezala, Marugamek plakak bidali zituen Gipuzkoako Futbol Federazioari emateko, hondartzako futbol lehiaketan garaikur gisa bana zitezen (otsailaren 13an, asteazkenarekin, jaso ziren). Donostiak ere (otsailaren 11n, astelehenarekin) lau plaka bidali zituen hara, beisboleko eta haurrentzako beste kirol lehiaketa batzuetako garaikur gisa banatzeko.
-Donosti Club Bonsairen bidaia. Donosti Club Bonsaiko bi kide joan ziren Marugamera, bonsaiaren teknikak hobetzera (martxoaren 15etik, larunbata, 30era, igandea).
-Marugame Junior High Schoolen bisita: urteroko jarduera izan arren, 2007an ez zen egin. Baina 2008an berriro ekin zaio. Eskola horretako ordezkaritza bat etorri zen Donostiara, eta Ekintza Ikastolaren ikasleentzako etxeetan eman zitzaion ostatu.

# Heineken Jazzaldia

43 Heineken Jazzaldiak **erronka zaila** zuen: edizioa aurrera ateratzea programazioaren **puntarria gabe**, hau da, **Trinitate Plaza** gabe. Beraz, baldintza hori ahaztarazteko moduko jaialdia diseinatu zen.

Batetik, programazioa **agertoki askotara** zabaldu zen: Kursaaleko auditorioa eta ganbara aretoa, Victoria Eugenia Antzokia eta Kluba, Altxerri, Agertoki Berdea, Heineken Karpa, Frigo agertokia eta, gau batean —Gaubiran—, beste zenbaitetara (Aquariuma, Boulevarda, Zientziaren Kutxagunea, Gazteszena...)

Bestetik, **izen handiak** nabarmendu ziren sei egun horietan zehar: **Keith Jarrett, Chick Corea, Liza Minelli, Diana Krall, Bobby McFerrin** eta beste asko.

Azkenik, zirriborratuta geratu denez, zenbait berritasunek —besteak beste, **Gaubira** eta **Open Mike**— osatu zuten Jazzaldiaren **historiako ediziorik bikainenetako bat** izan den honen eskaintza: **79 emanaldi** eta **150.000 ikusletik gora**.

Bestalde, 2008an Heineken Jazzaldiak **bi sari** garrantzitsu jaso zituen ustekabean. Espainian ematen diren saririk nabarmenenak **Musikaren Akademiak** eman ohi dituenak dira; gure Jazzaldiak musikaren zabalkundeari emandako **Difusión Musical** izenekoa jaso zuen Valladoliden egindako gala batean, eta 2008aren azken aldera, berriz, Teledonostik antolatutako gala batean, **Urteko Gipuzkoarra**ri emandako saria jaso zuen, edizio ezin ikusgarriago eta entzungarriagoagatik.











# Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea

Udaleko Gazteria eta Giza Eskubideen Atalarekin batera ekoiztutako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen XIX. edizioa **urriaren 31tik azaroaren 8ra** bitartean egin da. **44.157 ikusle**k parte hartu dute, hala zine emanaldietan nola programa osatzen duten jarduera paralelo guztietan (kaleko antzerki ikuskizunak, Komikiaren V. Jardunaldiak, erakusketak...). *Utzidazu sartzen* film suediarrak irabazi du Ikusleen Saria. Programazioan, urteak generoan eman dituen titulurik garrantzitsuenak nabarmendu dira, hala nola **Martyrs** frantsesa, ***Eden Lake*** edo ***Hush*** britainiarrak, ***Repo!***, ***The Genetic Opera*** eta ***Surveillance*** iparramerikarrak, eta autore klasikoen film berriak: Shinya Tsukamoko (***Nigthmare Detective 2***), Dario Argento (***La terza madre***) edo Bill Plympton (***Idiots & Angels***). Zine, fantasia, izu eta dibertsioz betetako bederatzi egunek osatu dute Astea.
















# Giza Eskubideen Zinemaldia

Giza Eskubideen Zinemaldia 2008ko **apirilaren 18tik 25era** bitartean egin da, Victoria Eugenia Antzokian, horixe baita zinemaldiaren egoitza, eta hiriko beste hainbat lekutan. **Elías Querejeta** zinegileak **Giza Eskubideen Saria** jaso zuen Zinemaldian. Bertan, giza eskubideek munduan jasaten duten zanpaketarekin zerikusia duten era guztietako gaiak jorratu dira —terrorismoaren biktimak, klima aldaketa, pobrezia, gerra, Afrika, Latinoamerika, oroimen historikoa— hainbat filmetan (besteak beste, ***Klass, Persépolis, El baño del Papa, A Jihad for Love*** edo ***To Die in Jerusalem***), antzerki ikuskizunetan, erakusketetan, kontzertuetan eta Antzokian bertan filmen zuzendariekin, eta jorratutako gaietan diharduten erakundeetako ordezkariekin izandako solasaldietan. **15.000 ikusle baino gehiago** izan dira aurten Zinemaldian. Edizioz edizio, gero eta sendoago ari da hartzen bere lekua hirian.











# dFERIA

| | Antzezlanak | Emanaldiak | Ikusleak |
|---|---|---|---|
| **ARETO-IKUSKIZUNAK** | | | |
| Victoria Eugenia | 4 | 6 | 2.231 |
| Club Aretoa | 3 | 6 | 644 |
| Antzoki Zaharra | 7 | 8 | 2.206 |
| Kursaaleko Ganbera Aretoa | 2 | 2 | 897 |
| Gazteszena | 5 | 5 | 746 |
| Imanol Larzabal | 3 | 3 | 509 |
| **GUZTIRA** | **24** | **30** | **7.233** |
| **KALE-IKUSKIZUNAK** | | | |
| Sagues | 1 | 1 | |
| Alde Zaharra | 9 | 50 | 25.900 |
| Argentinar errepublikaren pas. | 1 | 3 | 1.350 |
| Alderdi Eder | 1 | 1 | 450 |
| **GUZTIRA** | **12** | **55** | **27.700** |
| **BESTE IKUSKIZUNAK** | | | |
| Antzerki airean | | | 84 |
| Antzerki airean lehiaketako sari-emate ekitaldia | | | 15 |
| VEA sari-emate ekitaldia | | | 10 |
| Stars erakusketa | | | 2.000 |
| Antzerkiak 25 urte: mahaia | | | 13 |
| Arte Eszenikoen kooperazio-politikak: mahaia | | | 10 |
| Dantzarien mahaingurua | | | 14 |
| SAREAko bilera | | | 52 |
| ESKENAko bilera | | | 18 |
| Esquina Norteko bilera | | | 12 |
| Red-eko zuzendaritza-taldearen bilera | | | 10 |
| Cofaeko bilera | | | 14 |
| Christina Mourarekin solasean | | | 69 |
| Enrique Federmanekin solasean | | | 103 |
| Zuzendariekin eginiko topaketak | | | 8 |
| ARIADNA programaren aurkezpena | | | 12 |
| Encarni Genuaren liburu-aurkezpena | | | 50 |
| Mercartes-eko aurkezpena | | | 50 |
| Komunikabideekin izandako topaketak | | | 5 |
| Negozio topalekua | | | 50 |
| Prentsaurreak | | | 149 |
| **GUZTIRA** | | | **2.748** |
| **SEKTOREKO JENDEA** | | | |
| Programatzaileak | | | 96 |
| Banatzaileak | | | 40 |
| Komunikabideak | | | 70 |
| Konpainiak | | | 231 |
| Cofae-feriak | | | 7 |
| Bestelakoak | | | 17 |
| **GUZTIRA** | | | **461** |
| **GUZTIRA** | **36** | **85** | **38.142** |









# dFERIA

Edizio honetako **balantze** orokorra **ona** da. dFERIA Estatuko topagune garrantzitsuenetako bat izatera iritsi da, eta gero eta sona handiagoa du nazioartean. Nazioartekotasuna Donostiak 2016an Europako Kultura Hiriburu izateko aurkeztu duen hautagaitzarekin batera dator; hala, dFERIAk europar sortzaile handien ikuskizunak programatu ditu, hala nola *Noche de reyes* eta *Fragmentos*, Peter Brook-ena.

Gainera, aurten lehen jaialdi latinoamerikarra sortu da. **Itinerarte** du izena, eta Santander eta Segovia hiriekin batera egin da. Oso harrera ona izan du ikusleen eta bertan izan diren profesionalen artean. Itinerarte dFERIAren barruan sortu da, **bere izate bereziarekin**, eta **mugarria** da dagoeneko; izan ere, lehen aldiz antolatu da Espainian gisa honetako emankizun bat. Itinerarte dFERIAren barruan sartzeko ideia oso ondo hartu dute arte eszenikoetako profesionalek, baldintza ezin hobeak gertatu baitira herrialde bakoitzaren errealitatea eta testuinguru kultural eta ekonomikoa ezagutzeko, antolatu diren hainbat topaketa, mahai inguru eta ekitaldiren bitartez. Topaketa horiek, berriz, erakunde publikoen eta enpresa pribatuen ekimen profesionalak sortu dituzte, bira eta egitasmo berriekin, bi norabideetan, 2009. urtean garatzeko asmoz. Beraz, helburu nagusietako bat, espero zen bezala bete da: Europa eta Latinoamerikaren artean **metafora bidezko zubiak eraikitzea**, nazioarteko lankidetza egitasmoak kudeatzeko.

Aurten izan den aldaketa esanguratsuenetako bat, hain zuzen nazioartekotze eta gaurkotze horrekin batera gertatu da: **feriaren irudi eta izen aldaketa. dFERIA** izena izango du aurrerantzean. Aldaketa horri esker, programazioa arte eszenikoetako beste hainbat diziplinatara zabaldu ahal izan dugu, eta, bestalde, dantzari merezi duen lekua ematen lagundu du.

Duela bi urtetik hona, profesionalei ez zaie gonbita egiten gastu guztiak ordainduz, baizik eta beren premiak, ikuskizunetarako sarrerak eta jarduera bakoitzaren dokumentazioa errazten zaizkie. Oso erabaki garrantzitsua izan zen hori, eta arrisku handikoa, feriaren zuzendaritzak hartu zuena, gisa honetako antolakuntza batera datozen profesional guztien profesionaltasunaren eta berdintasunaren aldeko apustua. Espero izatekoa zenez, lehen erreakzioa ez zen ona izan, eta halaxe utzi zuen agerian duela bi urte izandako akreditatu kopuruak. Joan den edizioan gorakada nabarmena izan zen, eta 2008an **271 akreditatu** izan ditugu. Beraz, duela hiru urte genituen kopuruetan gaude berriz ere.

**Kaleko arteen** aldeko apustua 2006ko edizioan hasi zen eta, bere hartan iraun ez ezik, indartu ere egin da, *Malditas* obra Leioako Umore Azokarekin, Valladolideko Jaialdiarekin eta Gasteiz eta Bilboko udalekin batera egindako koprodukzioaren bidez. Feriak hirian egiten den kale ikuskizun garrantzitsuena hartu du bere baitan.

**Jarduera paraleloak** izan dira dFERIA 08ren beste ezaugarri bat. Victoria Eugenia Antzokiak berak sortutako sinergiak probestuz, Feria aberasten duten eta goi maila ematen dioten hainbat jarduera zentralizatu dira. Heldu zein txikiei, profesionalei eta, oro har, ikusleei zuzendutako jarduerak izan dira, eta Feria ideiak trukatzeko eta salerosketarako foru bihurtu dute.

Orain artean eginkizun zeuden zenbait zeregin ere bete dira aurten. Esate baterako, **gaueko topalekua**, Casino kafetegian, arrakastatsua izan da, bai eta nazioarteko profesionalak bertan izatea ere. Pixkanaka, feria sendotuz doa Donostiako udako kultur gertaera handienen artean.





# Literaktum

Literaktum jaialdiaren **laugarren edizioa**ren amaieran, balantzea positiboa izan da, publikoari eta edukiei dagokienez. Literatura saioon helburu nagusia **proposamen-aukera zabala** eskaintzea da, publiko mota bakoitzak bere lekua izan dezan, arreta berezia eskainiz **literatura beste arte-sorkuntza batzuekin** nahasteari.

**Maiatzaren 12an, astelehena**, abiarazi zen programazioa: mahai ingurua izan zen, eta **Ixiar Rozas** eta **Angel Erro**k parte hartu zuten; **Eli Tolaretxipi**k egin zituen moderatzaile-lanak. Euskal literaturaren beste joera batzuk aztertu ziren, bi egile bereziren ikuspegitik: batetik Angel Erro, literaturaz duen ikuspuntu grekolatindarretik, eta bestetik Itziar Rozas, literatura beste formula batzuekin nahasteko egitasmoa (Periferiak jaialdia) bultzatzen dutenetako bat.



Asteartean, **Espido Freire**k jende asko bildu zuen **Okendo** Kultur Etxean, eta gogoeta interesgarriak egin zituen, bai eta aholku batzuk eman ere literaturgintzara hurbiltzen direnei, hala nola umila izan eta batez ere idazle gisa hezteaz arduratu behar dela.



Asteazkenean, halaber, jende asko bildu zen **Fernando Iwasaki** idazle perutarrak eman **Idazketa Lantegira**. Gaia mikrokontakizuna zen, eta hauxe izan zen ideia nagusia: mikrokontakizunez inguratuta gaudela (nekrologikoak, horoskopoak, hiztegiko definizioak...), baina beste begi batzuez ikusten ohitu behar dugula, literaturaren begiz.

Literatur saiook helburu nagusietako bat publiko berrietara hurbiltzea da, eta hori ondo baino hobeto bete zen **Ernest Lluch** Kultur Etxean, **Fernando Iwasaki**k moderatutako eztabaidan. **Mauro Entrialgo** binetagile polifazetikoak eta Deustuko Unibertsitateko irakasle **Juan Manuel Díaz de Guereñu**k hartu zuten parte. Bigarrenak zenbait liburu argitaratu ditu euskal komikiaren historiaz eta bilakaeraz. *Cómic y crítica social* titulupean, bi egileen elkarrizketa bertan ziren entzuleetara zabaldu zen, eta oso solasaldi bizia egin zen. Azkenean, komikiak eta literaturak, elkarrekin lotura asko dituzten bi munduek, bat egin zuten.




Ostiralean, **Amir Valle** kubatar idazleak eta urte askoan Gernika Gogoratuz egitasmoko zuzendari izandako **Juan Gutierrez**ek historia belaunaldiz belaunaldi transmititzeaz jardun zuten, eta galdera bat utzi zuten, oroimen historikoa galtzen ari den garaian bizi ote garen. "Historia txikien" garrantziaz hitz egin zen, jende arruntaren, ahotsik ez dutenen historiaz.

Saiooi amaia emateko, ohiko bihurtu den ekitaldia izan zen, **poesia Urumearen ertzean. Zehra Cirak** poeta turkiar-alemaniarrak, **Xenya Dyakonova** ukrainarrak eta **Angel Erro** nafarrak beren poemak irakurri zituzten Benartegi baserriko zelaian, eta **Iban Nikolai** eta **Iker Telleria** musikariek (didgeridoo eta perkusioa, hurrenez hurren) giro berezia sortzen lagundu zuten.



# hemen gaude
# estamos aquí

**A. DONOSTIA KULTURA**
Harrera - Zuzendaritza
Recepción - Dirección
Reina Regente, 8 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org

**B. DONOSTIA KULTURA**
Bulegoak - Oficinas
Konstituzio plaza, 1 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org

**C. Casares - Tomasene**
Darieta bidea, 1 (Altza)
Tel.: 943 351149 • casares@donostia.org

**D. Altza**
Larratxo pasealekua, 55
Tel.: 943 396494 • casares@donostia.org

**E. Ernest Lluch**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943 481919 • amara@donostia.org

**F. Larrotxene**
Intxaurrondo kalea, 57 (Intxaurrondo)
Tel.: 943 291954 • larrotxene@donostia.org

**G. Intxaurrondo Berri**
Gaztela-Castilla, 2
Tel.: 943 279343 • larrotxene@donostia.org

**H. Loiola**
Aralar kalea, 17
Tel.: 943 454605 • loiola@donostia.org

**I. Lugaritz**
Heriz pasealekua, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 • lugaritz@donostia.org

**J. Okendo**
Nafarroa hiribidea, 7 (Gros)
Tel.: 943 290672 • okendo@donostia.org

**K. Egia**
Baztan, 21
Tel.: 943 291514 • egia@donostia.org

**L. Liburutegi Nagusia**
**Biblioteca Central**
Alderdi Eder, z/g • Tel.: 943 481488
liburutegia_alderdieder@donostia.org

**M. Liburutegi Nagusia,**
**Haur Saila.**
**Biblioteca Central,**
**Sección Infantil.**
Fermín Calbetón, 25 • Tel.: 943 481999
haurliburutegia@donostia.org

**N. Antzoki Zaharra**
**Teatro Principal**
Kale Nagusia / Calle Mayor, 3
Tel.: 943 481970 • taquilla@donostia.org

**O. Victoria Eugenia Antzokia**
Argentinako Errepublika,1
Tel.: 943 481160 • victoria_eugenia@donostia.org

**P. San Telmo Museoa**
Zuloaga plaza, 1
Behin behineko bulegoak / Oficinas provisionales:
Andereño Elbira Zipitria, 1
Tel.: 943 481580 • santelmo@donostia.org

**Q. Historiaren Etxea**
**Casa de la Historia**
Motako Gaztelua / Castillo de la Mota, Urgull
Tel.: 943 428417 • santelmo@donostia.org




www.donostiakultura.com